



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzaren arteko harremana Europan 1960-70 hamarkadetan

Analisi konparatu bat: Euskal Herriko, Irlandako,
Italiako eta Alemaniako kasuen azterketa

Mikel Alvarez Olaechea

Tutorea: Asier Blas Mendoza

Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultatea



GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO
ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN

**Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua
2014-2015 ikasturtea**

“La contradicción es la raíz de todo movimiento” Georg Wilhelm Friedrich Hegel, filosofo alemaniarra.

Aurkibidea

Sarrera	4
Ikerketa gaia	4
Justifikazioa.....	4
Ikerketa galderak eta hipotesiak.....	5
Helburuak	5
Metodologia	6
Egitura	6
Marko teorikoa	7
Zer da gatazka? Gatazka bortitzaren ezaugarritzea: errepasso bat	7
Azterketa markoak.....	9
Azterketa markoen aplikazioa	11
60-70 hamarkadetako mobilizazio zikloa Europan	16
Italia.....	17
Ikasle mugimendua (1967-69)	17
Mobilizazioen hazien errotzea (1970-73).....	18
“Riflusso” (1974-76)	19
Berpizte azkarra eta desagerpena (1977-80).....	19
Alemania.....	21
Ikasle mugimendua (1967-69)	21
Mugimenduaren instituzionalizazioa (1970-73)	22
Desilusioaren urteak (1974-76).....	22
Udazken alemaniarra eta mugimenduaren transformazioa (1977-80).....	23
Irlanda	24
Eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarria (1964-69)	25
Mugimenduaren asimilazioa eta borroka armatuaren agerpena (1970-73).....	25
Negoziatzeko ahalegina eta gatazka armatuaren jarraipena (1973-1980...).....	26
Euskal Herria.....	27
Gizarte zibilaren artikulazioa (1960-69)	28
Gizarte zibilaren indarra eta erakunde armatuaren agerpena (1970-73).....	28
Erregimen aldaketa eta aktibitate armatuaren jarraipena (1974-1978).....	29

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Aldaketa eza eta aktibitate armatuaren zertifikazioa (1979-1982...)	30
Agente armatuen agerpena	31
Aukera politikoen egitura	31
Marko diskurtsiboa	37
Egituratze markoa	39
Gatazkaren errepertorioa	41
Ondorio nagusiak	44
Masa mobilizazioetatik borroka armatura. Masa-bortizkeria lotura	44
Subjektu eta identitateak. Borroka sozial eta nazionalak	45
Bibliografia	49

Sarrera

Gatazka, politikaren erdigunean aurkitzen dugun elementu bat da, hain zuzen ere, politika bera interes ezberdinen arteko talka definitu dezakegu. Gatazka hori, politikaren eta politikotasunaren esparrua definitzen den momentutik hasten da sortzen eta azken finean, esparru horretan elkarrekintzan dauden gizarte sektore ezberdinak ordezkatzeko dituzten taldeen arteko lehia da. Beraz, gatazka bat aztertzea, unean uneko indar korrelazioa eta egoera soziopolitikoak aztertzekeko modu bat izan daiteke. Horrela, printzipio hau aintzakotzat harturik, prozesu politikoaren erdigunean kokatzen den elementu bat aztertu dezakegu eta ondoren, prozesu politikoak bere osotasunean aztertzekeko pista gehiago izango ditugu.

Kasu honetan, nahiz eta gatazkaren inguruan aritu, ez gara hertsiki itxiko gatazkaren analisi soil batean. Gatazka mota bat hartuko dugu erreferentziatzat (bortitza eta bereziki, armatua) eta horren protagonista izan ziren taldeak aitzakiatzat harturik, momentu hartako mobilizazio zikloa aztertuko dugu. Beraz, gatazka mota horietan parte hartu zuten taldeak aztertuz, gatazkari hurbilpen bat egiten saiatuko gara eta nola ez, prozesu politikoaren aspektuak ere ukituko ditugu.

Ikerketa gaia

Lan honen ikergaia, Europan emandako gatazka bortitzen, eta zehazki armatuen, analisia izango da. Horretarako, gatazka armatu horien eta mobilizazio zikloen artean dauden harremanak eta zubiak aztertzen saiatuko gara. Analisi hau, 1960 hamarkadaren bukaeran eta 1970 hamarkadaren hasieran zentratuko da, izan ere, denbora tarte horretan eman ziren gatazka bortitzen espresiorik nagusienak, gatazka armatuak alegia. Hori aztertzeke, 4 kasu hartuko dira: *ETA*¹ Euskal Herrian, *IRA*² Irlandan, *Brigate Rosse* Italian eta *Rote Armee Fraktion* Alemanian. Herrialde horietako mobilizazio zikloak aztertuko ditugu eta talde armatu batean zentratuko gara (ETAn zehazki). Analisia, bi marko analitikoren bidez garatuko da. Alde batetik, mobilizazio olatuak erabiliko dira eta talde bakoitzaren jatorri ideologiko-politiko-kulturala aztertuko da; bestalde, agenda klasikoa erabiliko da talde armatua bera aztertzeke (marko analitiko hau batez ere mugimendu sozialak aztertzeke erabilia izan bada ere, talde armatuak aztertzeke ere baliagarria suertatu ahal zaigu).

Esan beharra dago lan honen helburua ez dela egituraketa itxi bat planteatzea, izan ere, hori ezinezkoa da Gradu Amaierako Lan batean. Lan honen asmoa, hain zuzen ere, analisia garatzen eta lantzen joateko planteamendu bat plazaratzea da, lan mardulago bat ahalbidetuko duen planteamendua eta lehen jorraketa bat alegia. Hori dela eta, lanean zehar beste ikerketetarako baliagarriak suertatu daitezkeen hainbat galdera, ideia eta planteamendu aterako dira.

Justifikazioa

70. hamarkadaren bukaeran gertatuko mobilizazio zikloa nahiko gai aztertua izan da zientzia politikoetako akademian; mugimendu sozial berrien analisiaren eskola ere sortu zen behar akademiko horri erantzuna emateko. Hala ere, mobilizazio ziklo horren analisia gehiegi

¹ Euskadi Ta Askatasuna

² Irish Republican Army

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

zentratu da Frantziako 68ko maiatzean; kontuan eduki behar dugu Europa mailan mahaijoko politikoaren aldaketa nabarmena izan zela. Beraz, mobilizazio ziklo hori Europa mailan aztertzea interesgarria suertatu daiteke.

Bestalde, borroka armatuaren fenomeno bere horretan aztertua izan den arren, gutxitan konektatua izan da ikuspegi politologiko batetik mobilizazio ziklo orokorrekin. Hau ere interesgarria izan daiteke ikuspegi analitiko batetik. Olatu edo ziklo horien garrantzia azpimarratzea garrantzitsua da, izan ere, aldaketa nabarmenak ekarri ohi dituzte esparru politikora. Gaur egun, gainera, autore batzuen ustez ziklo berri baten aurrean aurkitu gaitzke eta beraz, ariketa konparatiboak gauzatzea interesgarria izan daiteke ere.

Ikerketa galderak eta hipotesiak

Ikerketan zehar gidatu gaituzten galderei dagokionez, hauek izango dira gure ikerketa zuzenduko duten galdera nagusiak:

- Ze erlazio dago mobilizazio zikloen eta borroka armatuaren sorreraren artean? Nolakoa da erlazio hori?
- Ze ezberdintasun dago eragin nazionala eta eragin soziala duten borroka armatuen inguruan? Nolakoa da ezberdintasun hori mobilizazio zikloak kontuan hartzen baditugu?

Galdera horiei aurre egiteko, hipotesiak formulatu ditugu. Horrela bada, ikerketa bera gidatuko duten baieztapenak honako lirarteke:

- Geroz eta mobilizazio zikloa indartsuagoa izan, orduan eta erraztasun gehiago daude borroka armatuaren fenomeno azaltzeko.
 - o Ezaugarritze soziala duten borroka armatuen kasuan, mobilizazio zikloa beharrezkoa da borroka armatu hori emateko.
 - o Ezaugarritze nazionala duten borroka armatuen kasuan, mobilizazio zikloa erraztatzailea da. Gainera, ezaugarritze soziala dutenak baino logika konstanteagoak, luzeagoak eta iraunkorragoak garatzen dituzte.

Helburuak

Helburuei dagokienez, hipotesiak eta galderak oinarritzat hartuz, bi mailatan banandu ditzakegu gure ikerketaren galderak: alde batetik, lanaren edukiari berari erantzuten diotenak eta bestalde, lanaren baliagarritasunari erantzungo lioketenak.

Horrela bada, lehenengo helburu horien kasuan, honako hau izango liteke bete beharreko helburua: mobilizazio zikloen eta borroka armatuaren arteko harremana ulertu eta horren gaineko analisia gauzatu. Horrela, mobilizazio zikloaren indarra borroka armatuen dinamikekin erlazionatzea da helburu nagusia. Helburu honen baitan, beste bi azpi helburu kokatu behar ditugu, izan ere, ezaugarritze nazionala eta soziala duten kasuak ezberdindu dira; bi hauen arteko ezberdintasunak aztertzea eta nabarmentzea izango litzateke bi azpihelburu horien funtsa.

Bigarren helburuari dagokionez, lanaren beraren erabilera da nabarmenduko beharreko puntua; lan honek etorkizuneko beste ikerketa eta analisi batzuk garatzeko balio dezake eta

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

gainera, hain zuzen ere, hori da bere asmoa. Lanak izan behar zuen tamaina eta eduki mugatuaren ondorioz, ezin izan da sakontasun gehiagorekin garatu. Horren adibide garbia da mobilizazio zikloak aztertzea, baina soilik borroka armatuaren kasu bat sakontasunean aztertu izana; asmoa analisi konparatibo oso bat garatzea zen. Horrela bada, analisi horietan sakontzeko,.

Metodologia

Metodologiari dagokion atalaren kasuan, aurretik esan bezala, bi korpus edo marko analitiko erabiliko ditugu: mobilizazio zikloen analisia eta mugimendu sozialak aztertzeko agenda klasikoa. Horiek biak garatzeko, lan bibliografikoa izango da oinarria, iturri historiografiko ez-zuzenen azterketa ginez. Horrez gain, iturri historiko zuzen batzuk ere erabiliko dira.

Gainera, lana ariketa konparatibo argi batean kokatu dugu. Horretarako, lehen esan bezala, analisi konparatibo asimetriko bat erabiliko dugu. Alde batetik, 4 mobilizazio zikloen analisia gauzatuko dugu (logiko kronologiko batekin eta material bibliografikoaren bitartez) eta beste alde batetik, talde armatu bakar bat aztertuko da sakontasunean (agenda klasikoaren bitartez). Horrela bada, ariketa konparatibo hori asimetrikoa bezala izendatu dezakegu; bi analisisietako bat bere osotasunean garatuko dugu, baina bestea ez. Horrela bada, eta aurretik aipatu bezala, lan honek euskarri edo oinarri bat bezala balio dezake bestelako azterketak garatzeko.

Egitura

Lanaren egitura zehatza, hau izango da:


- 60-70 hamarkadetakoko mobilizazio zikloa Europan: paradigma eta aro politiko berri baten hasiera
 - o Italiako kasua
 - o Alemaniako kasua
 - o Euskal Herriko kasua
 - o Irlanda kasua
- Agente armatuen agerpena
 - o Euskal kasuaren analisia: ETA
 - Aukera politikoaren egitura
 - Marko diskurtsiboa
 - Egituratze markoa
 - Gatazkaren erreperitorioa
- Ondorio nagusiak: Subjektu, identitate eta masa-bortizkeria harremanaren garrantzia ekintza kolektibo bortitzean

Marko teorikoa

Gatazka, prozesu politiko ororen oinarrian kokatu dezakegun elementu bat da. Horrela, gatazka baten dimentsioa aztertzea, prozesu politiko horrek izan ditzakeen elementuen sintesia aztertzea izango litzateke. Hala ere, gatazkan eragiten dituzten elementu horiek kontuan hartzea ere ezinbestekoa da arazoaren perspektiba guztia edukitzeko; azken finean, ekintzaren (hau da, gatazka) eta inguratzen duen markoaren (testuinguru, aktore...) arteko erlazio dialektikoa aztertzean datza analisi on baten gakoa.

Zer da gatazka? Gatazka bortitzaren ezaugarritzea: errepasso bat

Horrela bada, gatazka zer den zehatzen hasiko gara, izan ere, honen zehaztapena ezinbestekoa izango zaigu aurrera jarraitzeko. Gatazka, azken finean, gizartearen oinarrian aurkitzen den kontzeptu bat dugu, modu ezberdinetan azaleratzen dena erlazio sozialetan. Beraz, gatazkaren izaera definitzerako orduan, hainbat kontzeptu argi edukitzea komenigarria izango litzateke. Gatazkak, bere horretan, ez dira deuseztatzen, baizik eta transformatu egiten dira; denek kontzeptu berdintsuak dituzte, nahiz eta aldagaien aniztasunak marko zabal bat irekitzen digun; etikoki eta politikoki ez dira onak ezta txarrak, sinpleki existitu egiten dira; eta azkenik, biolentziaren eta gatazkaren arteko ezberdintasuna aipatu behar da, izan ere, ez dira sinonimoak. Biolentzia, gatazka batek izan dezakeen elementu bat da, betiere faktore eta aldagai zehatz batzuek eragiten dutena (Galtung, 1969,1971). Elementu guzti hauek batuz, irudi grafiko bat eraiki dezakegu gatazkan operatzen duten ezaugarriak kontuan hartuz. Teorizazio hori Johan Galtungek garatu zuen, berak eraikitako hiruki baten bidez. Hiruki horretan, hain zuzen ere, honako kontzeptu hauek agertzen ziren: Attitude, Behaviour and Contradiction. ABC delako hirukia deitzen zaio honi. Garatzen duen lehenengo kontzeptua, jarrera da (attitude) eta aktore konkretu batek egoera konkretu batekiko izango lukeen pertzepzio psikologikoa izango litzateke. Beste alde batetik, jokabidea (behaviour) dago, zeinak jarreraren gauzapena irudikatzen duen eta gatazkan eragiteko markoak eraikitzen dituen. Azkenik, kontraesana (contradiction) daukagu, gatazkaren muinean kokatzen dena eta egoera bera ikuspegi existentzial batetik definitzen duena. Beraz, hori izango litzateke gatazka orok izan ditzakeen elementuen interakzioa.



Beste ezaugarri erabakigarri bat, hain zuzen ere, bi aktore edo gehiagoren arteko gatazkan, aipaturiko aktore horien helburuak bateraezinak direla esan genezake (Hocker eta Wilmot, 1995). Zentzu horretan, aktoreen arteko dinamika liskartsuak sortzen dira, izan ere, alde batek bestea oztopo bat bezala ikusten du bere helburua lortzerako orduan (Mitchell, 1981). Dinamika liskartsu horietan,aldi berean, bortizkeria ere agertu daiteke.

³ 1. ilustrazioa. Iturria: **Galtung, J.** (1969-1971). *Theories of conflict. Definition, dimensions, negations, formations.* University of Oslo. (105. orria).

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Hala ere, agerpen bortitz hori dinamika baten baitan kokatu duten autoreak daude, hala nola Glasl autoreak bere *The process of conflict escalation and roles of third parties* artikuluan 1982an plazaratutako ikuspegi, non 9 etapa definitzen diren. Beste batzuek ordea, faktore ezberdinen analisi batera mugatu dute kontua. Horrela bi planotan banatuko litzateke irakurketa: maila makroan eta mikroan. Gainera, faktore bezala, ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak hartuko genituzke (della Porta, 1995).

	ARRAZOI ESTRUKTURALAK	ARRAZOI KOIUNTURALAK
EKONOMIKOAK	Ezberdintasun ekonomikoak	Unean uneko ezberdintasun ekonomikoak
SOZIALAK	Haustura sozial estrukturalak	Aldaketa azkarrak (modernizazioa)
POLITIKOAK	Erregimen autoritarioak	Sistema politikoaren elementuaren krisia
KULTURALAK	Biolentziarenganako joera historikoa	Balioen aldaketa azkarrak

4

Beraz, biolentzia edo bortizkeria sortzeko arrazoi guztiak oso presente eduki behar ditugu geure lana garatzerako orduan. Jakina den bezala, gizarte zientzietan oso zaila da faktore bakar batekin azaltzea fenomeno bat eta beraz, fenomeno andana bat egon ohi da gertaera bakoitzaren atzean. Gainera honek erabiliko dugun marko analitikoetan berebiziko garrantzia du, izan ere, arrazoi mota ezberdinen arabera, gure kasu bakoitza parametro batzuetan edo besteetan kokatuko da. Hala ere, hau lanean zehar ikusten joango garen elementu bat da.

Teorizazio guzti hauek gizarte dinamiketara ekartzen badugu, ikusi dezakegu nola biolentziak edo bortizkeriak ekintza kolektiboaren aldaera bat bezala jokatzeko duen, hau da, ekintza kolektiboa garatzeko modu bat bezala definitu dezakegu. Beste biak, hain zuzen ere, ekintza konbentzionala eta disruptiboa izango lirateke. Horrela bada, gu lehenengo horren analisisan zentratuko gara (Tarrow, 1994).

Gainera, biolentziak 60. hamarkadan eta beraz, Europan borroka armatua erabiltzen zuten mugimenduen jaiotzan izan zuen garrantzia ezagutzeko, ikuspegi filosofikoago batetik ere begiratu dezakegu. Honen bidez, une hartako izpiritua ulertu eta barneratu genezake. Horretarako ezinbesteko erreferentzia dugu F. Fannon autorearen *Los condenados de la tierra* liburua eta J.P. Sartre egin zuen hitzaurrea. Bertan, biolentziaren goraiapamen bat egiten da, eta herraienta bat dela esateaz gain, haratago doa, izan ere, biolentziaren izaera askatzailea ere goraiatzen da: *“..esa violencia irreprimible, lo demuestra plenamente, no es una absurda tempestad ni la resurrección de instintos salvajes ni siquiera un efecto del resentimiento: es el hombre mismo reintegrándose. Esa verdad, me parece, la hemos conocido y la hemos olvidado: ninguna dulzura borrará las señales de la violencia; sólo la violencia puede destruirlas. Y el colonizado se cura de la neurosis colonial expulsando al colono con las armas. Cuando su ira estalla, recupera su transparencia perdida, se conoce en la medida misma en que se hace; de lejos, consideramos su guerra como el triunfo de la barbarie; pero procede por sí misma a la*

⁴ 1. taula. Jatorria: della Porta; D. (1995). *Social movements, political violence and the state: a comparative analysis of Italy and Germany*. New York: University of Cambridge. Hala ere, lanketa propioa da.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

emancipación progresiva del combatiente, liquida en él y fuera de él, progresivamente, las tinieblas coloniales. Desde que empieza, es una guerra sin piedad. O se sigue aterrorizado o se vuelve uno terrible; es decir: o se abandona uno a las disociaciones de una vida falseada o se conquista la unidad innata..." (Fannon, 1961,1965).

Horrela, gatazka bortitzaren errebaso bat eginik eta ikuspegi politiko, filosofiko eta praktikoak behin ikusirik, gure kasuak aztertze markoak definitzea da egin beharreko urratsa.

Azterketa markoak

Horrela bada, eta hau dena kontuan hartuta, aztertu nahi dugun kasuan sakontzeko zein marko analitiko erabiliko dugun erabakitzea da hurrengo pausua. Kontuan izanda aztergai ditugun mugimenduak eta prozesuak, gizarte mugimenduen barruan kokatu ditzakegula (nahiz eta berezitasun asko dituzten), horretarako aproposak diren markoak erabiliko ditugu. Marko hauek oso ohikoak egin ziren azterketa politologiko eta soziologikoetan 60-70 hamarkaden inguruan, izan ere, urte horietan alderdi tradizionalakiko independenteak ziren eta ekintza kolektiboa bereziki indartzen zuten fenomenoak ugaritzen hasi ziren, batez ere Europa mendebaldeak eta Amerikako Estatu Batuetan. Borroka armatu modernoan agerpena zuzenean dago erlazionatuta garai horrekin; gizarte mugimendu berri horien izaera aztertze erabili izandako markoak, beraz, aproposa dira borroka armatu moderno horren filosofia ulertzeko. Horren paradigma argia da 1968ko maiatza eta protestaren mugimendu horrek Italian eta Frantzia izan zituen ondoriok. Beraz, esan bezala, gure marko analitikoak gizarte mugimenduen esparruan kokatu dugu.

Definitzen hastearren, esan beharra dago 4 perspektiba nagusitu direla gizarte mugimenduan aztertzerako orduan. Perspektiba edo fokatzeko horiek, ikuspegiaren eta mailaren arabera definitu dira. Ikuspegiaren arloan, politikoa eta kulturala identifikatu ditzakegu eta mailan, ordea, makro eta mikroa. Horren arabera, honako eskola edo esparruak nabarmendu dira: portaera kolektiboaren analisia, baliabideen mobilizazioaren analisia, prozesu politikoaren analisia eta gizarte mugimendu berrien inguruan antolatuta zena (della Porta, Diani; 1999).

	GIZA EKINTZAREN LEHENGO IRUDI INPLIZITUA	
FOKATZE MAILA	MATERIALISTA	KULTURALISTA
MAKROSOZIALA	Mobilizazioa eta aukera politikoa PROZESU POLITIKOA	Gizarte programatua PORTAERA KOLEKTIBOA
MIKROSOZIALA	Aukera arrazionalaren teoria MOBILIZAZIO KOLEKTIBOA	Pragmatismoa, CHAT GIZARTE MUGIMENDU BERRIAL

5

Portaera kolektiboari dagokionez, ikuspegi makro batean kokatuko genuke eta ekintza kolektiboaren atzean dauden arrazoi kulturalak identifikatzen saiatzen da. Horrela, aztergai dugun kasuaren atzean dauden arrazoi zibilizatorio eta kulturalak identifikatzeko lituzke ikuspegi honek. 1960ko egoera paradigmatico hura, hain zuzen ere, aldaketa kultural eta sozial

⁵ 2. taula. Jatorria: della Porta, D.; Diani, M. (1999). *The Study of Social Movements: Collective Behaviour, rational Actions, Protests and New conflicts* liburu honetan argitaratua: *Social Movements: An Introduction*. Oxford: Blackwell. Hala ere, taula lanketa propiokoa da.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

bezala hartuko dute ikuspegi honetako ikertzaileek. Bertan, instituzioek eta kohesio soziala bermatzen zuten elementuek operatzeari utzi eta krisi bat sortu zuten. Aldaketa, krisi edota une historiko horietan nolako elementuek operatzen duten eta zer nolako elkartruke politikoak dauden aztertuko luke fokatze honek. Gaur egun portaera kolektiboaren fokatzeak duen teorizazioaren arabera, ordea, interakzio sinbolikoek dute aldaketa eta zentzu kulturalaren pisua. Agenteen eta sistemaren arteko elkartruke sinboliko, politiko eta sozial horiek izango lirakeke momentuko egoera deskribatzen dutenak. Gainera, aurretik aipatu bezala, sistema sozio-politiko-kulturalaren adierak errealitatea kontrolatzeko eta deskribatzeko gai ez direnean, krisi egoerak sortzen dira; hor daude aldaketaren gakoak, sistemaren eta agenteen arteko elkarrekintza gatazkatsu horretan. Beraz, fokatze honen defendatzaileek dinamika horietan jarriko dute beraien arreta guztia eta ez hainbeste agente edo estatuaren estrategietan (della Porta, Diani; 1999). Geure kasuan, aztertu nahi ditugun fenomenoak azaltzerako orduan oso baliagarri suertatu ahal zaigu ikuspegi hau, izan ere, krisi eta aldaketa makrokultural, politiko eta sozialetan kokatzen diren fenomenoak dira. Horrela, une horietan jarduten duten balioak, mekanismoak eta ikuspegiak azaleratzen saiatuko gara.

Prozesu politikoaren fokatzea dugu presente ere mugimendu sozialak aztertzerako orduan. Fokatzea hau ere maila makroan kokatzen da, baina aurrekoa ez bezala, arlo politikoan botatzen ditu bere erroak. Izenak berak azpimarratzen duen bezala, ikuspegi honek prozesu guztian jartzen du bere arreta eta beraz, prozesu hori osatzen duten elementu guztietan (hala nola, aktoreetan, estrukturan, egituraren...). Eragile ezberdinen arteko elkarrekintza horrek eta gatazkaren izaerak baldintzatuko du, beraz, analisi honen bilakaera. Hala ere, instituzioetara eta eragin politiko normalizatura jo dezake askotan fokatze honek, eta ondorioz, muga bat suposatuz dezake analisia garatzerako orduan. Gainera, agenteek edo mugimendu sozialez aritzen garenean, aspektu politikoa presente edukitzeaz gain, identitatea definitzen duten elementuak eta aldaketa kulturala ekartzen dutenak ere kontuan hartu behar ditugu. Prozesu politiko bere horretan aztertzeak, esan bezala, nahiko mugatua izan daiteke (della Porta, Diani; 1999). Geure kasuan, ikuspegi hau ere kontuan hartuko dugu, izan ere, prozesu politiko bere horretan aztertzea garrantzitsua da, bertan sortzen diren dinamikak identifikatzen saiatzeko. Hala ere, esan bezala, beste ikuspegi batzuekin konbinatu beharko litzateke ikuspegi osoago bat edukitzeko.

Beste alde batetik, mobilizazio kolektiboaren ikuspegia dugu, errekurtsoen mobilizazioaren teoria bezala ere ezagutua. Eskola hau, jakina den bezala, eskema mikro batean kokatuko genuke eta betiere, ikuspegi politikoaren prismaren azpian. Horrela, teoria arrazionalekin lotu dezakegu ere, izan ere, aktore eta agenteen jokabidea aztertzen du, modu arrazional batean, jakina. Prozesu politikoaren barruan, aktore edo agente bakoitzak dituen errekurtsuak mobilizazioan oinarritzen da ikuspegi hau eta bertan txertatu dezakegu, hain zuzen ere, ikuspegi arrazionala. Agente eta aktore horiek sortzen dituzten sareak aztertzen dira era berean ikuspegi honen bidez. Kritikak aipatzearen, arlo emozionala alde batera uztearena da, hurrengo ikuspegiarekin garatuko dena alegia (della Porta, Diani; 1999). Ikuspegi honen hainbat elementu txertatuko genituzke ere gure analisisan, prozesu politiko osoarekin konbinaturik betiere.

Azkenik, gizarte mugimendu berrien analisia gauzatzeko garatutako ikuspegia dugu. Maila mikro eta kultural batean kokatuko litzateke. Eskola edo perspektiba hau, berriena dela esan

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

dezakegu eta zientzia politikoen arloan gutxien garatu dena. Horrela, enfoke honen arabera, norbanakoen ekintzen autonomia izango lukete beste elementuengandik eta beraz, ekintza horien analisia gauzatu behar da. Beraz, jarrerren analisi bat gauzatu da eta unean uneko balore, jokabide etab. identifikatzen saiatuko dira. Honek duen abantaila, eragileengan garrantzi guztia jartzea da, baina aldi berean, beste faktore batzuk alde batera uzten dira. Gainera, eskola honek ez dizkigu baliabide asko ematen gatazkaren mekanismoen inguruan, ezta ere horrek duen dinamismoaren inguruan (della Porta, Diani; 1999).

Azterketa markoen aplikazioa

Mugimendu sozialak aztertzeko erabiltzen diren ikuspegiak aztertu ondoren, gure lanean txertatuko ditugun perspektibak erabakitzea egokitzen zaigu. Horrela, bi baliabideren bidez gauzatu dugu analisia. Alde batetik, **agenda klasikoa**⁶ erabiliko dugu (hau, prozesu politikoaren analisitik eratorritzen den marko bat da, nahiz eta mobilizazio kolektiboaren hainbat elementu ere barneratzen dituen) eta bestalde, **mobilizazio olatuen**⁷ ideia ere erabiliko dugu (hau, ordea, portaera kolektiboaren esparruan kokatu dezakegu, ikuspegi kultural batean beraz). Horrela bada, gure analisiaren eskema honela geratuko litzateke.

	GIZA EKINTZAREN LEHENGO IRUDI INPLIZITUA	
FOKATZE MAILA	MATERIALISTA	KULTURALISTA
MAKROSOZIALA	Mobilizazioa eta aukera politikoa PROZESU POLITIKOA	Gzarte programatua PORTAERA KOLEKTIBOA
MIKROSOZIALA	Aukera arrazionalaren teoria MOBILIZAZIO KOLEKTIBOA	Pragmatismoa, CHAT GIZARTE MUGIMENDU BERRIAL

● Agenda klasikoa
● Mobilizazio zikloak

8

Mobilizazio olatuen erabilpena biziki garrantzitsua da hautatuko kasuen inguruko hausnarketak eta analisiak barnebiltzeko, izan ere, aro edo olatu kultural-politiko ezberdinen oinordeko diren aktoreak ditugu mahai gainean. Honetarako, Karl-Werner Brand autoreak eraikitako teoriaren gainean arituko gara lanean. Pisu gehien duen kontzeptua, kasu honetan "Zeitgeist"⁹ edo klima kulturala bezala ezaguturikoa da. Honen arabera, aro ezberdinetan elementu komun batzuk dituzten mobilizazio olatuak gertatzen dira. Horrela, krisi kultural-politiko bati erantzuten dioten paradigma politikoak dira mobilizazio ziklo horiek. Esan bezala, garaian garaiko elementu komunak barnebiltzen dituzte ziklo hauek eta beraz, maila guztiz estruktural batean kokatu behar dugu analisirako baliabide hau.

Mobilizazio ziklo edo olatu horiek anitzak izan dira historian zehar eta azkeneko urteetako garrantzitsuenak hauek izan dira: XIX. mendeko 30-40 urteetan emandako, XX. mendearen hasieran emandakoa eta 1960-70 urteetakoa, hain zuzen ere (Brand, 1992). XX. mendeko olatu

⁶ McAdam, Tarrow eta Tilly autoreek garaturiko markoa.

⁷ Karl-Werner Brand autoreak garaturiko ideien gainean eraikiko dugu marko hau.

⁸ 3. taula. Jatorria: della Porta, D.; Diani, M. (1999). *The Study of Social Movements: Collective Behaviour, rational Actions, Protests and New conflicts* liburu honetan argitaratua: *Social Movements: An Introduction*. Oxford: Blackwell. Hala ere, taula lanketa propiokoa da.

⁹ Alemanieratik datorren hitz bat da eta momentuko klima kulturala edo "denboraren espiritua" esan nahi duena. Hegelen filosofiatik edaten duen kontzeptua da baina Armando Peters edo Cornelius Jagdmann bezalako autore klasikoek ere erabili dute.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

hori modernizazioarekin lotu dezakegu eta beraz, nazionalismoa edo komunismoa bezalako makroideologiek eta 1960-70 urteetako, berriz, mugimendu sozial berriekin eta horrek suposatzen duen kritika guztiarekin. Horrela, aztergai ditugun aktoreak bi kategoriatan banandu ditzakegu. Alde batetik, 1960ko mobilizazio zikloaren babespean sortu ziren adierazpen bortitzak ditugu eta besteak, 1960 ziklo horren partaide diren arren, aurreko zikloaren elementuak ere jasotzen dituzte, hau da, nazionalismoaren olatuan erroak sustraitzen dituzte. Hau, analisiaren hasieran esan dugun bezala, hipotesi soil bat izango litzateke, ondoren aztertuko duguna. Hau guztia oso erabilgarria zaigu, esan bezala, izan ere, aztergai ditugun kasuen artean tipologiak identifikatzerako orduan pista ematen dizkigu.

Guzti hau Tillyk biolentziaren inguruan identifikatu zuen dilema batekin erlazionaturik dago, zeinak esaten duen biolentziaren logikak olatuetan ematen diren, nahiz eta olatu kulturalak baino eskala txikiagokoak diren. Olatu horien arabera, biolentzia une konkretu batzuetan modu intentsiboen eman daiteke eta beste aro batzuetan ez da existituko. Beraz, ez da erregulariki ematen den fenomeno bat, baizik eta gorabeheratsua da, testuinguruaren arabera noski (Tilly, 2007). Testuinguru horretan, aldagai politiko estrukturalak sartuko lirateke, maila txikiago batera mugatzen direnak, baina betiere, K.W. Branden ustetan, une historiko-kultural zehatz batera egongo lirateke lotuak.

Horrekin batera beraz, aztergai ditugun kasuen izaera hutsetik haratago, gizartearen banaketa estrukturala ere oso garrantzitsua da. Banaketa estruktural hau ere Brandek definituriko olatu kultural eta historiko ezberdinekin lotu dezakegu, izan ere, une historiko bakoitzeko ideiek momentu horretako errealitate soziala definitzen dute. Horrela, autore batzuen ustez, identitate nazionalak askoz ere trinkoagoak dira eta ez dira erraz mugitzen gizarte baten barruan (Allardt, 1979 eta Pappalardo, 1981). Horrek, logika luzeagoko ekintza kolektibo, gatazka eta dinamikak sortu ditzake. Beraz, lehen aipaturiko lehen olatu horren logikak luzeagoak izan ohi dira 1960-70 ezker berriaren identitate berriek sorturikoak baino. Horrek tipologia bat eratu dezake geure kasuetan, nahiz eta ez garen aurreratuko; lanean zehar hori frogatuko dugu.


Agenda klasikoa, esan bezala, prozesu politikoaren analisisan du jatorria eta 60-70 hamarkadetan fenomeno sozialak aztertzeko oso erabilia izan zen eta gaur egun ere nahiko erabilia da. Garai horretako errealitatea eta prisma politiko kontuan harturik, 4 printzipiori erantzuten dio agenda klasiko honek:

- Eliteen eta instituzioen analisisan ez da hainbeste zentratzen, baizik eta agente politiko eta sozialetan zentratzen da gehiago.
- Beste alde batetik, masa mugimenduak ez ditu zentzu komunaren engainu edo iruzur bezala identifikatzen, baizik eta ezinbesteko aktore politiko bezala kontsideratzen ditu ezinbestean.
- Hirugarrenik, eskubide zibilen aldeko aktibismoa autoindulgentziarako zentzugabeko jokaera arduragabeak zirenean ideien aurka egiten du lehen momenturik.
- Azkenekoz, protestaren analisi arrazional-determinatuen suposizio sinplistei aurre egiten zieten.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Printzipio hauetatik sortu zen agenda klasikoa deritzoguna, hain zuzen ere, aurretik zeuden markoen defizientziak gainditzeko eta baliabide gehiago eskainiko zituzten elementuak barnebiltzeko (McAdam, Tarrow, Tilly; 2005).

Agenda klasikoa aplikatzerako orduan, ordea, 4 elementu ezberdin ditzakegu: aukera politikoaren egitura, mobilizazio egiturak, ekintza kolektiboaren marko diskurtsiboak eta gatazkaren errepertorioak (McAdam, Tarrow, Tilly; 2005). Azkeneko honek garrantzia berezia du gure lanean, izan ere, gatazkaren errepertorio bakarren gainean zentratuko gara eta gainera, hori bortitza izanik, dinamika, mekanismo eta prozesu bereziak sortuko ditu mugimenduen baitan. Horrela bada, arlo hori berezi bezala izendatu ondoren, atal analitiko bakoitza zertan datzan azaltzera sartuko gara. Baina horretan sartu baino lehen komeni da eskema guztia buruan edukitzea.



¹⁰ 2. ilustrazioa. Jatorria: della Porta, Diani, Tarrow, Tilly eta McAdam autoreek teorizatutako ereduen gainean eraikia. Hala ere grafikoa eta eskema lanketa propiokoak dira.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Aukera politikoaren egituraren kasuan, ingurune politikoaren inguruan arituko gara, izan ere, elementu horretan zentratzen da. Ingurune politiko horren testuingurua kontzeptu klabe bat izango da mugimendu politiko ezberdinen analisia garatzeko, izan ere, horren arabera gainerako elementu guztiak aldatu daitezke. Horrela, testuinguru horiek bi azpiatal izango lituzke, aldaketarako duten joeraren arabera banatuak. Alde batetik, elementu egonkorrik izango genituzke, aldaketa estrukturalak epe luzean jasotzen dituztenak hain zuzen ere. Honen barruan, elementu hauek dira aztertzeokoak: estatu mota (hauteskunde mailan, lurraldetasun mailan eta justizia mailan) eredu errepresiboa eta tolerantzia sinbolikoa. Kontzeptu hauek azaltzen ez gara asko sartuko, izan ere, lanean zehar agertuko diren elementu ezberdinen bidez aztertuko ditugu. Gainera, kultura politikoaren kontzeptua ere hemen txertatu dezakegu, hau da, gizarteak kohesiorako dituen dispositiboaren analisia (della Porta eta Diani, 1999). Hemen sartuko genuke ere estatu mota indartsua edo ahula denaren analisia; nahiz eta hau ez den hertsiki agenda klasikoaren barnean sartzen, lanean zehar ere erabiliko da (Tilly, 2007). Beste alde batetik, elementu aldakorrik ditugu, hain zuzen ere aldaketa konstanteagoetara ohituta daudenak eta beraz, maila estruktural askoz txikiago batean ematen direnak. Hauen kasuan ere, bi azpisailkapen egin ditzakegu. Alde batetik, eliteen egitura, bertan aldagai hauek daudelarik: politika publikoak ezartzeko gaitasuna, eliteen arteko zatiketa eta elite horien arteko erlazio ezegonkorren maila. Beste alde batetik, oposizioari dagozkien aldagaiek ditugu, hauetan bananduak: aliantza eraginkorren maila eta legitimitate eta gaitasun sinbolikoaren eragina.

Agenda klasikoaren hurrengo elementua, marko diskurtsiboa genuke, hau da, aztertzen ari garen mugimendu edo eragile sozialak dituen unean uneko irakurketa politikoak dira. Marko hauek ideologekin zerikusia duten arren, ezberdindu egin behar ditugu hauengandik, izan ere, marko hauek askozaz lausoagoak gertatu daitezke, izan ere, moldatzen doaz egoeraren arabera. Beste modu batera esateko, ideologiak egitura eta konstante luzeago batzuetara (Ibarra, 2005). Gainera, marko diskurtsiboa hauek garrantzia dute bi zentzutan: alde batetik, taldearen edo mugimenduaren identitatea definitzean eta azpimarratzean (hemen, protagonista, antagonista eta audientzia ezberdintzen dira) eta beste alde batetik, taldearen edo mugimenduaren ekintzetarako marko teoriko edo errealitatearen interpretazioaren elementu batzuk ematea (hemen berriz, diagnostiko, pronostiko eta motibazio markoa ezberdindu ditzakegu) (Hunt, Benford, Snow; 1994 eta Ibarra, 2005).

Ondoren, agenda klasikoarekin jarraitzeko, egituratze markoak aipatu behar ditugu. Honako hauek, gizarte mugimenduaren antolaketa maila erakusten digute, hau da, aztertzen ari garen aktorea bera nola dagoen antolatuta. Bi norabideetan ulertu dezakegu parametro hau, izan ere, antolaketa eta mobilizazio egitura hauek bi norabideetan aurkeztu ditzakegu. Alde batetik, mugimendua bera osatzen duten aktoreak gizartean duten integrazio maila ikusi behar dugu, egitura estrukturaletan ze paper jokaten duten ulertzeko. Horrela, ikuskera komun bat, helburu eta interes komun batzuk partekatu ditzaketela ondoriozta dezakegu (della Porta, Diani; 1999). Beste alde batetik, mugimenduaren edo eragilearen beraren barne egitura aztertu behar dugu. Barne egitura hori faktore askori lotua egon ohi da eta modu arrazional batean ezarri ohi da, esandako faktore guztien eragina kontuan harturik, noski.

Azkenik, gatazkaren erreperitorioa dugu agenda klasikoaren azken elementu bezala. Aurretik esan bezala, hiru ekintza mota ezberdindu ditzakegu: konbentzionala, disruptiboa eta bortitza.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Ekintza mota horiek ezberdintzeko irizpidea, erradikaltasunaren arabera da; gainera, gure kasuan azterketaren ezinbesteko elementu bat bihurtzen zaigu hau, izan ere, ekintza mota konkretu bat (bortitza) erabiltzen duten mugimenduen inguruan biliko gara. Horrela bada, ekintza bortitz hori izango da gure lanaren ardatzetako bat. Hala ere, komenigarria da jakitea gatazka gauzatzeko errepertorioa aztertzeko irizpide gehiago existitzen direla, horien artean izaeraren arabera edo barne-logikaren arabera (della Porta, Diani; 1999). Gainera, beste elementu bat ere azpimarratu beharreko da, WUNC¹¹ izeneko hain zuzen ere. Honen arabera, duintasuna, batasuna, kopurua eta grina bezalako aspektuak oso garrantzitsuak dira egiten diren ekintza ezberdinetan, izan ere, aspektu horiek adierazteko egiten diren ekintzak dira askotan hain zuzen ere. Horrela, horiek ere kontuan hartu behar dira analisi egoki bat gauzatzeko orduan (Tilly, 1986 eta Tarrow, 1994).

Beraz, hauek guztiak kontuan harturik, gure kasuak aztertuko ditugu eta ondoren, ariketa konparatibo baten ondorioz, ondorioak aterako ditugu. Hala ere, horretan hasi aurretik, aipatzekoa da, nahiz eta agenda klasikoa oso erabilgarria izan horrelako azterketa baterako, agenda klasikoa bera formula zuten autoreek orain beste marko osagarri batzuk erabiltzen dituztela beraien analisiak aurrera eramateko. Kasu oso konplexuetan agenda klasikoak akatsak omen ditu eta bere izaera estruktural eta estatikoaren ondorioz, hainbat parametro kontuan hartu gabe uzten ditu (McAdam, Tarrow, Tilly; 2005).

¹¹ Ingeleseko *worthiness, unity, number* eta *commitment* hitzen laburpena da.

60-70 hamarkadetako mobilizazio zikloa Europan

Paradigma eta aro politiko berri baten hasiera

Ziklo mobilizatzaileak aztertzen sartuko gara orain. Esan bezala, mobilizazio ziklo horien arabera markatu dira dinamika orokorrak. Berriro ere K. W. Branden hitzak ekarrita, mobilizazio ziklo erraldoi horiek aldagai kulturalak dituzte; hala ere, aldagai politiko komun orokorrak ere oso garrantzitsuak dira dinamikak modu eraginkor batean identifikatzeko. Gure kasuan, 60-70 urteen inguruan emandako mobilizazio kolektiboaren azkartzea aztertuko dugu eta horrek eragin zituen ondorioak. Horrela, Europa mailan herrialde bakoitzaren kasu ezberdina izan arren (kasu bakoitza ondoren aztertuko dugu), elementu politiko eta kultural komun batzuk adostu daitezke, hala nola:

- Gerraosteko hazkunde ekonomikoaren ondorioz sorturiko klase egituraketak eta gizarte esparru berriek ezaugarritzen duten mobilizazio ziklo berri baten aurrean gaude.
- Gizarte esparru horietako bat ezinbestekoa izango da mobilizazio ziklo berri hau ulertzeko; gazteria izango da, hain zuzen ere, horren protagonista argia. Horrela bada, belaunaldien arteko talka bortitza gertatuko urte bolada honetan.
- Modernizazio klasikoari kritika bat egiten zaio, gizartearen haustura berriak azaleratuz eta mahai gainean jarriz.
- Horrekin loturik, mugimendu sozial eta ezker berrien agerpena gauzatuko da. Ezker klasikoak (alderdi sozialistak eta komunistak) bere esparruan aktore gehiago agertzen direla ikusiko du, kontzepzio eta hortzimuga berriak ekarriko dituztenak.
- Protesta ziklo global baten aurrean gaude; hau da, dagoeneko estatu bakoitzak ez du bere autonomia propioa garatzen, baizik eta ekintza kolektiboaren agerpen gehienek nazioarteko dimentsioa erakusten dute. Hala ere, ezin dugu ahaztu herrialde bakoitzak bere berezitasunak ere badituela, unean uneko testuinguru eta baldintzei loturik daudenak. Beraz, adibidez Europako eta hirugarren munduko borrokek eta paradigma berriek lotura estua izango dute.
- K. W. Brandek klase ertaineko mobilizazio ziklo bezala izendatuko du¹², izan ere, dikotomia klasikoetatik haratago (lana kapitala edo zentro-periferia) haustura lerro anitzak sortuko dira mundu politiko eta sozialean; esparru horien protagonistak, hain zuzen ere, klase ertainak izango dira (Brand, 1982). Hala ere, ikusiko dugun bezala, herrialdez herrialde behaturik, kasu eta dinamika ezberdinen aurrean aurkitzen gara.

Behin puntu nagusi hauek azalduta, herrialde bakoitzeko mobilizazio ziklo propioaren analisisian zentratuko gara.

¹² Brandentzako mobilizazio ziklo gehienak kritika kulturalarekin dauden heinean (nahiz eta osagai politikoa ere presente egon), erdi mailako klaseak dira mobilizazio ziklo horiek babesten eta aktibatzen dituztenak. Hala ere, ez dugu planteamendu hau modu itxian hartu behar, hau da, mobilizazio zikloetara klase subalternoak batu ohi dira (Brand, 1982).

Italia

Italian 60. hamarkadaren bukaeran emandako mobilizazio zikloa aztertzeko, hain zuzen ere hamarkada horretako hasierara jo behar dugu. Bertan, maila estruktural ekonomiko-politikoan aldaketa garrantzitsuak ematen dira; boom ekonomiko bat ematen da eta horrela, eskulanaren enplegu ia osoak, langile klasearen posizio estrukturala indartu zuen. Ordurarte, iparraldearen eta hegoaldearen arteko aldea nabarmena zen eta herrialdeko erlazio politikoak baldintzatzen zituen. Iparraldea, industrializatuagoa eta aberatsa zen; hegoaldean, berriz, nekazal guneak eta ekonomia potentzial apalagoa zegoen. Beste modu batera esanda, iparraldeko produkzio harremanak garatuagoak zeuden hegoaldean baino. Baina, esan bezala, 60-65 urteen bueltan, iparraldeko industriak loraldi bat izango du eskulan merkea beharko du bere ekonomia industria garatzeko. Produkzio sistema fordista garatuko da eta langile andana joango da hegoaldetik iparraldera lan egitera. Honek ekonomia eredian aldaketa sakonak eragiteaz gain, lantegietako mugimendu politikoan ere aldaketa nabarmenak egongo dira. PCI alderdi oso garrantzitsua izango da Italiako politikan, besteak beste, II. mundu gerran faxisten kontrako borrokan lortutako prestigioarengatik eta gizartearen sektore subalternoetan zuen babesagatik. Sindikatuen esparruan, ordura arte CGIL (batez ere), CISL eta UIL¹³ bezalako sindikatuak hegemonizatutako langile borrokan, bestelako esparruak eta logikak nagusituko dira. Hegoaldetik zetozen langileek ez zuten alderdiekiko erlazio hertsiki esturik eta beraz, beraien antolatze forma askoz libreagoa eta hein handi batean, autonomoagoa zen. Horrek, gero ikusiko dugun bezala, ondorio nabarmenak izango zituen (Magri, 2009).

Beste alde batetik, hezkuntzaren arloa ere aipatu behar dugu, izan ere, erabakiorra izan zen ondoren etorriko den ziklo azkartzailea ulertzeko. Langileekin gertatu bezala, unibertsitateak ere masifikatuko dira eta langile klasearen semek-alabak bertara joango dira ikastera, modu progresibo batean. Horrela, une horretara arte gune elitistak zirenak, klase borrokaren beste esparru bat bihurtuko dira. Horiek ere protesta zikloaren zentro garrantzitsu bilakatuko dira eta fabriketako borrokaren eta unibertsitateko aktibismoaren arteko hurbiltze prozesu bat egongo da. Honen adibiderik garbiena Trentoko unibertsitatea izango da, nahiz Milanekoak eta Turinekoak protagonismo handiagoa izango duten lantegiekin emango diren erlazioengatik (Magri, 2009).

Oinarri material eta sozial guzti honen harira, hurrengo urteetan mobilizazio zikloa bezala ezagutzen den garaia emango da; protesta zikloa bezala ere definitua izan da autore ezberdinegatik (Tarrow, 1990). Gure kasuan, 4 etapatan bananduko dugu mobilizazio ziklo hau (della Porta, 1995):

Ikasle mugimendua (1967-69)

Beste herrialdeetan gertatu bezala, 60. hamarkadaren bukaeran hasi zen mobilizazio zikloan ikasleek protagonismo nabarmenarekin eman zen hasiera batean. Horrela, hasierako protestak unibertsitatean zeuden arazoaren harira hasi ziren, batez ere gobernuak proposatzen zuen unibertsitatearen erreformaren kontra. Diskurtsiboki ikasleek bi zehar lerroetan banatu zuten euren jarduna: alde batetik, antiautoritarismoa (ziklo kultural berri batekin hertsiki lorturik

¹³ PCItik hurbil dagoen sindikatua (CGIL), demokristau bezala kontsideratu daitekeen sindikatua (CISL) eta inspirazio sozialdemokrata zuen sindikatua (UIL), hurrenez hurren.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak European 1960-70 hamarkadetan

aurkitzen dena) eta beste alde batetik, klase gatazkaren gaineko diskurtsoa. Horrela, bigarren honen bidez, ezker klasikoarekin loturak edukitzen hasi ziren eta batez ere, fabriketako langileekin kontaktu zuzena izango dute. Hau da agian Italiako ikasle mugimenduaren bereizgarririk garrantzitsuena: oso azkar eta modu zuzen batean hasi ziren langileekin harremanak garatzen. Ez dugu ahaztu behar lantegietan egoera ere oso tentsionatua zegoela, izan ere, 60. hamarkadan emandako hazkunde azkar hori krisian sartua zegoen, lan-gatazkak asko ugartuz.

Ekintza edo gatazkaren erreperitorioari dagokionean, ekintza disruptiboak eta konbentzionalak tartekatzen zituzten. Garrantzitsua da azpimarratzea lehen momentu batean ez zituztela ekintza bortitzak erabiltzen; pausu hori aurrerago emango dute, poliziarekin eta eskuin muturreko sektoreekin jazotako hainbat gertakarien ondorioz.

Horrela bada, etapa hau bukatzean “ezker berri” horren hainbat erakunde sorturiko dira, hala nola, *CUB*¹⁴ delakoak fabriketan eta *Il Manifesto*, *Lotta Continua*, *Potere Operaio*, *Avanguardia Operaia*, *Movimento Studentesco*, *Prima Linea* (geroago Sinistra Proletaria bihurtuko zena) eta *Unione dei comunisti (m-l)* bezalakoak esparru politiko erradikalean. Nahiz eta ezker tradizionalarekiko (sozialistak eta komunistak) diskurtso ezberdina garatzen zuten, sinbologia eta kosmobisio antzekoa erabiltzen zuten; horrela, ordezkatzeko zuten soziologian eta jardunbideetan alde nabarmena egon arren, zenbait esparru berdinetan lan egiten zutela esan dezakegu (Scialoja, 1994).

Mobilizazioen hazien errotzea (1970-73)

Hiru urtetako ziklo hau markatu duen faktore klabea, ikasle mugimenduaren aktibitatea jaistea eta ekintza kolektibo hori beste esparru batzuetara hedatzea izango da. Horrela, indar hori fabriketara, feminismora edota hirietako beste borroka sektorialetara desplazatuko da. Lehen aipaturiko “ezker berri” hori izango da hein handi batean borroka horien protagonista nagusia eta gainera, modu autonomoan lan egingo duten beste aktibisten nukleo txikiak batuko zaizkio. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea klase borrokaren eskema klasikoa erreproduzitzen zela nabarmen Italian, izan ere, ezker tradizionalaren paradigma eta sinbologiak erabiltzen jarraitzen zen, langile klasean jarriz indar diskurtsiboa.

Horren adibide garbia, ikasle mugimenduko liderretako asko ezker berri horren parte izatera pasa zirela da, fabriketara joz eta esan bezala, klase borroka klasikoaren eskemak erreproduzitzen. Esan dezakegu, beraz, aurreko zikloaren egonkortze eta errotze fasea izan zela eta mobilizazio ziklo horretatik sortutako erakunde eta dinamiken zabaltzea etorri zela. Horrela, ezker libertarioko edo autonomoko¹⁵ adierazpideak sortu ziren (ezker berriaren baitan zeuden gehienak), baina baita ere borroka armatua paradigmazat zuten erakundeak, besteak beste Brigada Gorriak. K.W. Brand autorearen ustetan, modernizazioarekiko jarrera pesimista kulturalak bultzatu zuen ezker berri horretako sektore bat borroka armatura (Brand, 1992).

¹⁴ Italiaraz, Comitati Unitari di Base delakoak ziren. Bertan, langileek bere kabuz hartzen zituzten erabakiak eta estruktura sindikal tradizionalatik haratago doan antolakuntza bat garatzen zen.

¹⁵ Ezker autonomoaz ari garenean, PCik haratago zioan mugimendu iraultzaileaz ari gara. Mugimendu autonomoa lantegietako eta unibertsitateetako esperientzia asanblearioez baliatzen zen eta komunismoaren eta anarkismoaren hainbat elementu nahasten zituen bere izaera ideologiko eta praktikoan.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Biolentziarekin jarraituz, esan beharra dago nahiz eta aurreko 3 urteetako mobilizazio ziklo hori zertxobait geratu, biolentziaren presentzia mantendu eta zenbait kasutan, handitu egin zela. 67-69 urteetan biolentzia espezializatu gabea eta espontanea izan zen bitartean, garai honetan biolentziak planifikazio eta teorizazio maila altuago bat izango du. Beraz, erradikalizazio argi bat ematen dela esan dezakegu; horren adibide garbia, aurretik aipaturiko Brigada Gorrien taldea da.

“Riflusso” (1974-76)

Mobilizazio zikloaren beheratzea etorriko da garai honetan, italierazko izenak esaten duen bezala. Horrela, masa mobilizazioek krisi bat jasango dute (batez ere lantegietako borroka zikloa amaitutzat ematen delako), ezker guztiak atzerapauso nabarmen bat emanez. Hala ere, ez dugu ahaztu behar garai honetan beste hainbat proiektu klabe sortu zirela; ezker berriak eta mugimendu autonomoak “Autonomia Operaia”¹⁶ sortu zuten eta honek berrantolaketa bat ekarri zuen ezker autonomo guztian. Borroka lantegietan ere mantenduko den arren, beste esparru batzuen agerpena ere etorriko da, hala nola, auzoetako arazo sozialena edota borroka sektorialena. Horrela, nahiz eta “riflusso” hori existitu, dinamika berriak sortuko dira.

Biolentziari eta aktibitate armatuari dagokionez, nabarmen igoko da bere presentzia. Horrela, bortizkeria antolatu horren garrantzia oso handia izango da urte horietako Italian. Erradikalizazio nabarmen bat gauzatuko da ezker erradikal guztian eta ekintza bortitzen kopurua handituko da. Bi bortizkeria mota ezberdindu ditzakegu tesutinguru honetan: planifikatutakoa (Brigada Gorriak izango dira honen protagonista nagusia) eta modu espontaneoagoan gauzatutakoa (zelula eta aktibista nukleo txikiek modu autonomoan eragindakoa) (Moretti eta Rossanda, 2002).

Berpizte azkarra eta desagerpena (1977-80)

1977an mobilizazioaren berpizte azkar bat egongo da, batez ere gazteen eta ikasleen partetik. Hala ere, ezin daiteke esan berpizte horrek inolako errorik edo hazirik utzi zuenik, izan ere, ez zen oso luzea izan denboran ez eta sostengatua gizartearen sektore indartsuetan. Gainera, zentral nuklearren kontrako mugimenduak edota borroka ekologistak pisu nabarmena izan zuten garai honetan.

Ezker berriaren esparruan, erradikalizazio ideologiko bat eman zen (teoria autonomoak indartu ziren) eta atomizazio eta nolabaiteko sektarismo puntu bat gauzatu zen. Gainera, langile klaseak zentralitatea galdu zuen diskurtsoan eta ez zen proiektu politiko argirik ageri maila diskurtsibo horretan.

Biolentziaren erabilpenaren kasuan, inoiz baina altuagoa izan zen. Horrela, erradikalizazio honek hein handi batean lantegietan eta esparru sozial marjinaletan kokatzen ziren sektoreen babesa ez zuen lortu eta askok atzerapauso bezala identifikatu zuten; horren adibide garbia da mugimenduko militante asko poliziarekin kolaboratzera pasatu izana (della Porta eta Rucht, 1995). Errealitate hau guztiz gauzatuko zen Brigada Gorriek Aldo Moro bahitu eta erail zutenean. Momentu horretan (1978. urtean), mugimendu autonomoko eta erakunde

¹⁶ Autonomia Operaia, 1973 eta 1979 urteen artean aktibo egon zen talde politikoa izan zen. Tradizio autonomoa jasotzen zuen indarra izan zen eta Italiako ezker berri eta erradikalak izan zuen antolakunde esanguratsuena.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

armatuko erlazioak asko okertu ziren; gainera, oinarri sozialaren babesa ere galdu egin zuren hein handi batean. Hemendik aurrera kokatu dezakegu mobilizazio ziklo olatu handi horren bukaera Italian.

Horrela bada, biolentziaren erabilpena mobilizazio zikloan presente egon zela esan daiteke. Hala ere, grafikoek erakusten duten bezala, ekintza bortitzak ez ziren inondik inora ere ugariak izan mobilizazio ziklo horretan. Gainera, masa olatu mobilizatzaileak indartsuen zeuden garaian biolentzia hori ez zen oso handia izan; masa mobilizazioak jaisten direnean eta aktibitatea urriagoa denean, ordea, grafikoan ikusten den bezala, biolentzia planifikatuaren adierazpideak inoiz baino ugariagoak dira.



FUENTE: Sidney Tarrow, *Democracy and Disorder, Protest and Politics in Italy, 1965-1975* (Oxford y Nueva York: Oxford University Press, 1989), p. 306.

17

Forma de la acción	% del total	Incidencia
Huelga	20,3	1974
Marcha	12,4	1206
Miitin público	9,8	955
Ocupación	8,3	812
Bloqueo	8,2	797
Asamblea	7,3	709
Petición	6,6	639
Ataque violento	6,0	589
Ataque contra la propiedad	6,0	584
Enfrentamiento violento	5,1	497
Enfrentamiento con la policía	3,9	382
Entrada forzada	1,0	100
Huelga de hambre	0,7	70
Alboroto	0,6	58
Acción directa	0,4	48
Panfletada	0,3	33
Protesta simbólica	0,3	33
Acción legal	0,2	18
Violencia indiscriminada	0,1	15
Robo	0,1	11
Acampada en lugar público	0,1	7
Otros	1,6	154
Sin clasificar	0,4	48
Total	99,7	9739

FUENTE: Recalculado por Sidney Tarrow, *Democracy and Disorder, Protest and Politics in Italy, 1965-1975* (Oxford y Nueva York: Oxford University Press, 1989), p. 68.

18

¹⁷ 3. ilustrazioa. Jatorria: **Tarrow, S. (1989): *Democracy and disorder, Protest and politics in Italy. 1965-1975*. New York: Oxford University.**

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

	Jarrera eta jokabidea	Biolentzia motak
Ikasle mugimendua 1967-69	Konfrontazioa: ekintza disruptiboak eta ezker klasikoarekin aliantzak	Bortizkeria espontanea
Mobilizazioen hazien errotzea 1970-73	Konfrontazioa: ekintza bortitzak eta konpetentzia ezker klasikoarekin	Bortizkeria antolatu eta semi-militarraren hazkundea
Riflusso 1974-76	Konfrontazioa: kontrakultura sortzeko ahaleginak eta konpetentzia ezker klasikoarekin	Bortizkeria antolatu eta semi-militarra. Talde armatuak presente.
Berpizte azkarra eta desagerpena 1977-80	Konfrontazioa: ekintza bortitzak, kontrakultura eta konpetentzia ezker klasikoarekin	Bortizkeria autonomoa eta talde armatuen presentzia

19

Alemania

Alemaniarren kasuan, mobilizazio zikloa ulertzen hasteko eta kokatzeko, gerra osteko gizartera jo behar dugu. Alemania, gerraren eta nazien mamua sufritu ondoren, kontsentsuzko gizarte bat izatera pasa zen, nahiz eta bitan banatzeak (Alemaniako Errepublika Federala eta Alemaniako Errepublika Demokratikoa) bizitza politikoa argi eta garbi baldintzako zuen. Kontsentsuzko egitura horretan, Alemaniak bi tradizio nagusi zituen, egonkortasuna ematen ziotenak: sozialdemokratak (nahiz eta gorabeherak eduki, hala nola, ilegalizazioak etab.) eta kristaudemokratak.

Testuinguru honetan, Alemaniako mobilizazio zikloak 60. hamarkadako bukaeran sakontzen ditu bere erroak. Horrela, ikasleak eta gazteak izango dira horri hasiera emango diotenak. Italian cleavage nagusiak ipar-hego eta klase borroka izan ziren bitartean, Alemanian adinaren eta belaunaldien faktore hartu behar dugu kontuan. Horrela, gerra eta gerraosteko gizartea ezagutu ez zuten pertsonak hasiko dute mobilizazio ziklo hau, ikasleak bere zait handienetako batean. Della Porta autorearen eredu jarraituz, 4 faseetan banatuko dugu Alemanian emandako ziklo mobilizatzailea (della Porta, 1995):

Ikasle mugimendua (1967-69)

Europa osoan gertatu bezala, Alemanian ere ikasle mugimenduak hasi zuen ziklo mobilizatzailea. Horrela, gobernuak unibertsitatean inposatu nahi zituen lege ezberdinen kontra hasi ziren protestak. Hor garrantzi handia izan zuen Berlineko Unibertsitate Askean emandako borroka. Ikasle problematika honetaz gain, Vietnamgo gerraren aurkako mobilizazioek ere pisu handia izan zuten. Beraz, bi ildo hauek izan ziren hasiera batean mobilizazioen motorra.

¹⁸ 4. taula. Jatorria: **Tarrow, S. (1989): *Democracy and disorder, Protest and politics in Italy. 1965-1975.*** New York: Oxford University.

¹⁹ 5. taula. Jatorria: **della Porta, D. (1995): *Social movements, political violence and the state: a comparative analysis of Italy and Germany.*** New York: University of Cambridge. Hala ere, itzulpena eta egokitzapena lanketa propiokoa da.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak European 1960-70 hamarkadetan

Aurrera eraman zituzten ekintzak, hasiera batean, konbentzionalak eta disruptiboak deiturikoak ziren, hala nola, okupazioak, manifestazioak edota desobedientzia zibilekoak. Hala ere, bestelako talde batzuk kontrakultura erradikal bat sortzen hasi ziren, non bortizkeriaren aldeko giroa presente zegoen. Hala ere, bortizkeria horren presentzia ez zen nabaria mugimendu mobilizatzailean. Horrela, eszena bortitzak soilik poliziarekin egoten ziren talketan gertatzen ziren. Hau Benno Ohnesorg ikaslaren hilketaren eta Rudi Dutschke aktibistaren kontrako atentatuaren ondoren erradikalki aldatu zen; inflexio puntu horietatik aurrera biolentzia planifikatua azaltzen hasi zen eta horretara dedikatzen ziren taldeak agertu ziren. Horrela, mugimendua pixkanaka-pixkanaka erradikalizatzen joango zen. Hor kokatu behar dugu Alemaniako talde armatuaren sorrera, RAF (Rote Armee Fraktion) delakoarena hain zuzen ere. Hala ere, talde armatu hauek ez zuten subjektu edo planifikazio zehatzik ezarri lehen momentu batean behintzat; Europako olatu mobilizatzailearen eta hirugarren munduko esperientzia antikolonizatzaileen babesean jaio ziren. Indarkeria espiral handien papera ere erabakiorra izan zen, izan ere horren harira indar eta presentzia gehiago hartzen hasi ziren.

Mugimenduaren instituzionalizazioa (1970-73)

1969an Willy Brandt aukeratu izango da sozialdemokratez eta liberalez osaturiko gobernu batean. Honek, askoren ustetan, aurreko urteetako mobilizazioen amaiera ekarriko du. Hemendik aurrera, ikasleek beraien indarra galduko dute. Hala ere, Italian gertatu zen prozesu antzeko bat gertatuko da: ikasleen mobilizazio hori bizitza politikoaren beste esparru batzuetara trasladatuko da. Hala ere, Italian ez bezala, mugimendu berri hauek ez zuten paradigma iraultzailerik garatzen eta hein handi batean, gizarte mugimendu konbentzionaletan bilakatu ziren. Aipatzekoa da mugimendu feministaren presentziaren hazkundera garai honetan. Horrela bada, garatzen zituzten ekintzak oro har konbentzionalak ziren. Hala ere, hainbat ekintza disruptibo ere eraman ziren aurrera; hori bai, ekintza bortitzak oso arraroak ziren mugimendu hauen artean.

Mugimendu iraultzailean eta ezker erradikalaren kasuan, Italiako ereduaren kontrako gertatu zen. Ez zen langile klasea erreferentziatza hartu eta beraz, ezker klasikoaren eta berriaren arteko ezberdinketa diskurtsibo eta sinboliko bat garatu zen. Horrela, subjektu ezberdinak eta berriak bilatzeari ekin zion ezker berri horrek; gizartearen esparru marjinatuak hartu zituzten erreferentzia bezala eta hortik abiatuta, gaizkile, drogazale edo gaixo mentalez osaturiko gizarte esparruetan lan egin zuten.²⁰ Biolentziaren erabilera dagokionean, talde hauen kasuan presente egon zen, gehienbat ekintza espontaneo bidez. RAFek bere lehen hildakoak eragingo ditu urte hauetan. Beraz, bortizkeriaren erabilera horren inguruko teorizazioak handitzen joango ziren; hala ere, Italia baina garapen gutxiago jasango du mugimendu bortitzak.

Desilusioaren urteak (1974-76)

Urte hauetan, aurreko urteetan eman zen mugimendu sozialen instituzionalizazio prozesuen ondorioak jasoko dira. Horrela, aktibista eta pertsona asko beraien mugimenduetatik aterako da eta bizitza pribatura bueltatuko da (Brand, 1986 liburu honetan: della Porta, 1995). Horren adibidea da, abortuaren legearen harira, mugimendu feminista ahuldu izana. Beraz, mobilizazio egiturak eta aktibisten presentzia gutxitu egingo da Alemaniako bizitza politikoan.

²⁰ Subjektu marjinalen teorian sakontzeko, ikus Foucault.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak European 1960-70 hamarkadetan

Beste ondorioetako bat erradikalizazioa izan zen; instituzionalizazio saiakeren aurrean, mugimendu askok kontrakultura bat sortu zuten, ohiko politika mespretxatuz. Horren adibideak dira preso politikoen aldeko mugimenduen sorrera edota mugimendu antikapitalista erradikalak. Horrela, ezker berriaren berpizte lauso bat etorriko da askoren ustetan, hurrengo urteetan ondorio nabarmenak izango dituen.

Protestaren erreperitorioari dagokionez, estatuak erabilitako estrategiaren ondorioz (isolamendua eta jazarpen bortitza), erradikalizazio bat emango da esparru honetan ere. Hala ere, bi gune edo sektore ezberdinu behar ditugu. Alde batetik, mugimendu ekologista eta antinuklearra bezalako sektoreek biolentziaren kontrako diskurtsoa garatzen zuten; bestalde, talde armatuek biolentziaren gaineko teorizazioa garatzen joango dira (nahiz eta urte hauetan beraien aktibitatea oso baxua izan).

Udazken alemaniarra eta mugimenduaren transformazioa (1977-80)

Aurreko garaiko erradikalizazioak eta aktibitatearen gorakadak, alemaniak bizi izan zuen momenturik latzenean bukatuko da (gerraren ondorioz emandako egoerak alde batera uzten baditugu betiere). Estatuak borroka armatua praktikatzeko zuten taldeen aurka diseinatutako lege berriek polarizazio eta sektarismo handiagoa ekarriko zuten. Gainera, kartzelan zeuden RAFeko 3 pertsonen heriotzak (Baader, Ensslin eta Raspe) giroa oraindik gehiago nahastu zuen. Sektore askok estatua semifaxista edo autoritario bezala definitzen hasi ziren.

Hau dena RAFeko bigarren belaunaldiak²¹ aurrera eramandako ekintza bortitzekin lotzen badugu (Schleyer hilketak edo Lufthansa hegazkinaren bahiketak), emaitza hauek lortzen ditugu: aipaturiko estatuaren errepresioa eta bestalde, biolentzia modu militarizatuago batean garatuko duten zelula txikien agerpena. Beraz, tentsionamendu nabaria emango da Alemaniako bizitza politikoan. Biolentzia espontaneoaren garrantzia txikiagoa izango da, nahiz eta presente egongo den okupazioetan edota poliziaren kontrako masa mobilizazioetan.

Hurrengo urteetan 60. hamarkadaren bukaeran hasitako mobilizazio zikloa bukatuko da. Egia da 80. hamarkada Alemanian ekintza kolektiboz beteriko garaia izan zela (bakearen aldeko mugimendua eta mugimendu ekologista oso indartsu agertzen ziren), baina beste osagai politiko eta sozial batzuk egituratzen zuten ziklo hori. Horrela, nahiz eta 70. hamarkadan sorturiko hainbat talde martxan jarraitu, paradigmak eta baldintza politikoak guztiz ezberdinak izan ziren udazken alemaniarra deituriko gertakari horietatik aurrera.

Beraz, ondorio bezala, Alemanian mobilizazio zikloaren emandako bortizkeria ugaria izan zela esan dezakegu, baina Italian gertatu bezala, ez zen ekintzen gehiengoa izan. Horrela, mobilizazio olatu batek (1967-69) talde ezberdinen errotea ekarri zuen, bortizkeria erabiltzeko hautua egin zutenak tartean. Gainera, mobilizazio zikloaren amaiera ere antzekoa da Italian, izan ere, puntu gorenekin hasten da (1977 bi kasuetan) eta erradikalizazio bat ematen da (diskurtsoan eta praxian); ondorioz, estatuak errepresioa aplikatzen du eta talde armatuek sostengu indartsua ez zutenek, babes soziala eta espazio politikoa galtzen joango dira. Honek, ondorioetan azalduko den bezala, identitateekin eta subjektuen lotura zuzena du.

²¹ RAF talde armatua sortu zuten pertsona ia guztiak kartzelan zeuden 1975 urterako. Ondorioz, bigarren belaunaldi bat sartu zen taldean, ekintza bortitzagoak eramango zituenak aurrera.

	Jarrera eta jokabidea	Biolentzia mota
Ikasle mugimendua 1967-69	Konfrontazioa: ekintza disruptiboak	Bortizkeria espontanea
Mugimenduaren instituzionalizazioa 1970-73	Taktika moderatuak eta aliantzak ezker klasikoarekin	Bortizkeria semi-militarra eta talde armatuen presentzia
Desilusioaren urteak 1974-76	Konfrontazioa: kontrakultura sortzeko ahalegina eta konpetentzia ezker klasikoarekin	Talde armatuen aldizkako presentzia
Udazken alemaniarra eta mugimenduaren transformazioa 1977-80	Konfrontazioa: kontrakulturaren presentzia eta azkenik, isolamendua	Bortizkeria autonomoa eta talde armatuen presentzia

22

Irlanda

Irlandaren kasuan, Euskal Herrian bezala, 60-70eko mobilizazioa olatuaren ezaugarriak eta datak ez daude hain argi. Urte horietako mobilizazio zikloak, jakina den bezala, afera klasiko batekin topo egin zuen: afera nazionalarekin hain zuzen ere. Horrela bada, dinamika eta logika luzeagoak zehazten dira kasu honetan, gehienbat subjektu eta identitateekin loturik dauden elementuen ondorioz.

Gatazka politiko hau aztertzeko eta marko minimo bat eraiki nahian, datu hauek kontuan hartu behar ditugu (Alonso, 2003 eta Morrison, 1997):

- Irlandak 1922an lortzen du independentzia, nahiz eta 1918. urtetik Londreseko gobernuaren kontra egindako desobedientziak konstante bat izan. Hala ere, Ulsterreko (Ipar Irlanda) 6 konderri Erresuma Batuen eskuetan geratu ziren. Probintzia hauek gehiengo protestantea zuten, edo behintzat, protestanteen eta katolikoen arteko oreka zuten.
- Irlandako independentzia klabea izan zen IRA erakunde militarren kontrako neurriak hartzen ditu jaio berri den estatu irlandarrak. Erakunde honek ez zuen onartzen Irlandako zatiketa eta Ulsterreko 6 konderrien gaineko britainiarren eskumena (Irlanda eta Britainia Handiaren artean sinatutako bake akordioetan zatiketa hori zehazten zen). Tirabirak ugariak izango dira IRAREN eta estatu Irlandarraren artean.
- 1948an errepublika guztiz independente bezala osatzen da eta Commonwealthetik²³ ateratzen da.

²² 6. taula. Jatorria: della Porta, D. (1995): *Social movements, political violence and the state: a comparative analysis of Italy and Germany*. New York: University of Cambridge. Hala ere, itzulpena eta egokitzapena lanketa propiokoa da.

²³ Commonwealth 53 herrialderen arteko "borondatezko" batzea da. Herrialde guztiak (Mozañbik ezik) britainiar inperioaren parte izan dira noizbait. Helburu ekonomiko, politiko eta kulturalak dituen erakunde bat bezala definitu daiteke.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

- IRAk operazio ezberdinak eramango ditu aurrera 50. hamarkada guztian zehar eta 60. hamarkadaren hasieran. 1962an bere kanpainaren bukaera iragarriko du. Hala ere, ez ditu lortuko planteatzen zituen helburuetako bakar bat ere.

Testuinguru horretan sartzen gara 60. hamarkadako ziklo modernoan. Horrela, garai honetan Europako egoerarekin sintonian egongo diren gertakariak jazoko dira.

Eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarria (1964-69)

Biztanle katolikoek Ipar Irlandan sufritze zuten egoera gogorra zen; protestanteen aldean, bizi baldintza eskasak zituzten eta bazterketa soziala jasaten zuten bizitzako esparru guztietan. Horren aurrean, gizarte zibila mobilizatzen hasi zen eta 1964a CSJ (Campaign for Social Justice) delakoa sortu zen, katolikoentzako eskubide berdinak aldarrikatu zituenak. Hiru urteren buruan, hau da, 1967an NICRA sortu zen (Northern Ireland Civil Rights Association), CSJren jarraipena izango zena. Bere aldarriak ere aurrekoaren ildotik joango dira, hau da, komunitate katolikoarentzako eskubide zibil eta politikoa eskuratzea. Zehazki esanda, aldarrikapen hauek zituzten: sufragio unibertsala, bozkaren manipulazioarekin amaitzea, diskriminazioarekin amaitzea, lege errepresiboekin amaitzea eta polizia paramilitarrarekin bukatzea. NICRA delako mugimendua Europan ematen ari zen mobilizazioarekin sintonian zegoen arren, USAtik elementu gehiago jasotzen zituzten; komunitate beltza beraien eskubideen alde sorturiko mugimenduekin antz gehiago zeukan, hala nola Martin Luther Kingen esperientziekin (Morrison, 1997).

Bestalde, eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarrien olatu horretan PD (People's Democracy) erakundea sortu zen. Talde honek bere borrokei enfoke erradikalago bat emango die, nahiz eta eskubideen planoan kokatzen den bere diskurtsoa. Beraz, talde honen inspirazioa Europa kontinentalean kokatu dezakegu gehienbat, izan ere, 68ko esperientzien harira sortu ziren, gehienak ikasleak eta gazteak ziren eta antzeko paradigmak garatzen zituzten (Morrison, 1997).

Garai honetako gatazkaren errepertorioari so egiten badiogu, ikusi dezakegu nola ekintza konbentzionalak eta disruptiboak diren ohikoenak. Horrela, eskubide zibil eta politikoen aldeko borroka bat izanda, gatazka mota hori erabiltzea zen ohikoena. Hala ere ez dugu ahaztu behar Ipar Irlandan elementu sektarioak eta dinamika luzeagoko logikak aurkitzen ditugula. Beraz, komunitateen arteko talka bortitzak konstante bat izango dira, nahiz eta olatu ezberdinak egon. Urte hauetan existitu ziren arren, beste ziklo batzuetan baino urriagoak izan ziren.

Mugimenduaren asimilazioa eta borroka armatuaren agerpena (1970-73)

Eskubide zibil eta politikoen aldeko mugimenduaren indarra ikusirik, Ipar Irlandako gobernuak hainbat neurri hartzen hasi zen katolikoek eskubideak errespetatzeko. Horrela, mugimenduaren asimilazioa eta gatazkaren baretzea eskuratu nahi zuten, NICRaren mobilizazioak ahulduz. Gobernuak nahi zuen efektua lortu zuen, izan ere, NICRAk proposatzen zituen eskaera gehienak onartu zituen eta honek, bere mobilizazioak eten zituen hein handi batean.

Hala ere, kontrako efektua ere eman zen, izan ere eskubide zibil eta politikoen aldeko masa mobilizazioek komunitateen arteko biolentzia ekarri zuten (Tilly, 2007). Horrela bada, IRAREN ekintzek pisua hartu zuten berriro ere eta talka armatua presente egoten hasi zen (nahiz eta ez

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

zen guztiz desagertu). Horren harira, IRAREN baitan banaketa bat egon zen: Official IRA eta Provisional IRA adarrak banandu ziren. Lehenengok ikuspegi marxistago bat zuten eta komunitateen arteko biolentzia sektarioa errefusatzen zuten; gainera, britainiar armadaren kontra hasi zuten kanpaina 1972an eman zuten amaitutzat. Bigarrenek, ordea, ez zuten baldintzarik jartzen Irlanda berriro ere batzeko. Biek ala biek 1972 su eten bat deklaratu dute eta negoziazio batzuk izan ondoren, Provisional IRAk bere ekintzekin jarraituko du.

Garai honetan ematen den bortizkeria, armatua bezala definitu dezakegu. Hala ere, Italia eta Alemanian gertatzen ez den fenomeno bat agertzen zaigu, izan ere, bortizkeria hori identitate eta komunitate oso sendotan banatzen da. Horrela, biolentzia komunitateetan banatzean, gizartearen gehiengoa biolentziaren baitan bizi zen eta gizartea bera goitik behera zeharkatzen zuen paradigma bezala identifikatu dezakegu. Gainera bortizkeria horrek espiral moduko batzuetan funtzionatzen zuen, non ekintzen arteko erlazioak gatazkaren intentsitatea handitzen zuen (Morrison, 1997). Horren adibide garbia da Bloody Sundayen gertatutakoa, non armada britainiarrak 14 pertsona hil zituen eskubide zibil eta politikoen aldeko manifestazio batean.

Negoziatzeko ahalegina eta gatazka armatuaren jarraipena (1973-1980...)

70. hamarkadaren hasieran gertatuko ekintza armatuak (479 hildako osotara 1972an) eta oro har, bizi zen egoera larriak, britainiar gobernuaren negoziaketak batzuetara bultzatu zuten. Horrela, irtenbide bat bilatzeko ahaleginetan, lehen aipatu bezala, IRAREN bi adarrek su eten bat deklaratu dute 1972an. Nahiz eta urte berean hautsi zen su eten hori PIRAREN aldetik, saiakera politikoen aurrera jarraitu zuten. Horrela, britainiar gobernuak Ipar Irlandako asanblea partekatu baten proposamena egingo du (Sunningdaleko ituna bezala ezagutua izango dena) eta irlandar izaera kontuan hartuko duela baieztatuko du. Hala ere, PIRAK ez du hau onartuko eta presio armatuaren bitartez ituna bertan behera geratuko da 1974an. Gatazka armatua berriro ere bere osotasunean bueltatuko da eta frakzio berriak agertuko dira errepublikarren aldean, INLA²⁴ kasu (Alonso, 2003).

Hurrengo urteetan, ekintza armatuen, su etenen eta negoziaketen jokoak etorriko da, baina betiere dinamika berdina jarraituz. Horrela, bortizkeria ohikoa izango da ziklo honetan, bai armatua eta bai espontaneoak. Aurretik esan bezala, bortizkeria hori komunitateen baitan banatzen zen eta posizio guztiz zentrala okupatzen zuen Ipar Irlandako bizitzan. Beraz, dinamika bortitz hau ez zen gizartearen sektore soil batera mugatzen; borroka armatuaren eta espontaneoaren arteko sinbiosia nabaria zen, komunitate bereko jendeak praktikatzen zuelako beste komunitate baten kontra. Horrela, ezin dugu biolentziaren arrazoiketa mobilizazio olatu soil batera mugatu; erro sakonagoak ditu, identitatean eta komunitateetan oinarritzen direnak.

Hala ere, beste herrialdeetako mobilizazio zikloak antzekotasunak aipatzearren, esan beharra dago bortizkeriaren egituratze eta lehertze hori masa mobilizazioen ondoren gertatu zela. Distantziak gordez eta ezberdintasunak errespetatuz, Italian eta Alemanian antzeko fenomenoak gertatu ziren. Taulan ikusi daitekeen bezala, 1972an eman zen biolentzia olaturik bortitzena, hau da, eskubide zibil eta politikoen aldeko masa mobilizazioen zikloa eta gero.

²⁴ Official IRAtik sorturiko adarra, ikuspegi erradikalago eta marxistago bat garatu zuena. Ekintza armatuak aurrera eramatearen alde agertu zen.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Hala ere, aurretik esan bezala, biolentziak logika konstante bat izan zuen, 70. hamarkadan zehar luzatu zena.

Año	N.º
1969	19
1970	26
1971	171
1972	479
1973	253
1974	294
1975	260
1976	295
1977	111
1978	81
1979	121
1980	80

25

	Jarrera eta jokabidea	Biolentzia mota
Eskubide zibil eta politikoaren aldarria 1964-69	Presio eta taktika konstante eta moderatuak. Asimilatu daitezkeen aldarriak.	Ekintza konbentzionalak. Biolentzia maila baxua.
Mugimenduaren asimilazioa eta borroka armatua 1970-72	Kolaborazioa instituzioekin. Ondoren, aktore armatuen oposizioa.	Biolentzia militarra, semi-militarra eta espontanea komunitateen artean.
Negoziatzeko ahalegina eta gatazka armatuaren jarraipena 1973-80...	Negoziaketa instituzioekin. Ondore, oposizio bortitza eta elkarrizketa taktikoak.	Biolentzia militarra, semi-militarra eta espontanea komunitateen artean.

26

Euskal Herria

Euskal Herriko mobilizazio zikloa aztertuko dugu orain. Alemaniako eta Italiako kasuen gertatu ez bezala, Euskal Herriko eta Irlandako kasuetan zailagoa da denboran zehar ezaugarri zehatzak adieraztea; logika eta dinamika luzeagoak aurkezten zaigu denboran. Hala ere, bereizgarri guzti hauek analisia garatu bitartean ikusiko ditugu.

Euskal Herrian, analisia gauzatzerako orduan egoera nahiko berezi baten aurrean aurkitzen gara. Orain arte aztertutako beste herrialdeak demokrazia liberalak ziren mobilizazio olatua jazo zen unean. Euskal Herria, ordea, diktadura baten aurrean aurkitzen zen eta horrek protesta zikloa ezberdina izatera behartu zuen. Nahiz eta, ikusiko dugun bezala, ez diren hainbat fenomeno erreproduzitzen kasu honetan, beste hainbat antzekotasun ere topatu ahal ditugu.

60. hamarkadaren hasierara begiratu behar dugu hurrengo urteetako zikloa ulertzeko. Urte horietan Espainiako gobernuak ekonomia liberalizatuko zuten hainbat lege onartuko ditu, hala nola, Plan de Estabilización y Liberalización (1959) delakoa eta Hitzarmen Kolektiboarena

²⁵ 7. taula. Iturria: Lanketa propioa da. Ipar Irlandako gatazkak urteka eragindako hildakoak ageri dira bertan.

²⁶ 8. taula. Iturria: Lanketa propioa da.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

(1958). Erreforma hauen ondorioz, Espainiako estruktura ekonomikoa Europako beste herrialdekoetara parekatzen hasiko da, nahiz eta oraindik asko falta horretarako. Eskubide zibil eta politikoen arloan, ordea, ez dira aurrerapenak emango eta horrek tentsionamendu bat sortuko du: estruktura ekonomiko moderno bateko mugimendu politikoak sortuko dira, baina horiei ezingo zaie aterabide politikorik eman, izan ere, oraindik ez dira estruktura politiko liberalak garatuko. Testuinguru horretan hainbat mugimendu artikulatuko dira, garrantzia izango dutenak.

Gizarte zibilaren artikulazioa (1960-69)

Esan bezala, aurretik aipaturiko testuinguru horretan gizarte zibila estruktura politiko eta sozialetan artikulatzen joango da, mugimendu ezberdinak sortuz (Letamendia, 1994):

- Alde batetik, industrializazio azkarraren eta hiri-inguruneen transformazioaren ondorioz, langile mugimenduaren berpizte bat egon zen: ELA-STV, HOAC edo UGT bezalako sindikatuak modu klandestinoan hasi ziren funtzionatzen. Gainera, hainbat greba emango dira, mugimendua indartuko dutenak.
- Maila kulturalen, euskal nortasunaren berpizte bat emango da. Ikastolak zabaltzen hasiko dira 1960tik aurrera eta horrek euskal identitatea eta kultura indartuko du. Gainera, plano hertsiki kulturalen, 1965ean Ez Dok Hamairu taldea sortuko da, euskal kantagintzan erreferente bat izango dena. Euskal artearen berpizkundea ere kontuan hartu beharko da urte hauetan, Oteiza, Ibarrola edo Txillida erreferente direlarik.
- Beste alde batetik, 1962-1965 urteetan Vatikanoko II. kontzilioa ospatuko da; Euskal Herrian inzidentzia handia izango du, katolikoek herri asanbladak sortzen lagundu zuelako. Hauek, kritika gogorra gauzatu dute eliza ofizialaren aurka eta gizarte mugimendua artikulatzen lagunduko dute. Ez dugu ahaztu behar Euskal Herria herri nahiko kristaua zela garai hartan.
- Berpizkunde politiko bat ere eman zen. Ordurarte oposizioko indarra erbestean bazeuden ere, Euskal Herrian bertan mugimendu politikoak eratzen hasiko dira. Horren adibiderik esanguratsuenak ETA da, 1959an sortua eta euskal abertzaletasunari beste ikuspegi bat emango diona.

Horrela bada, ezin esan daiteke masa mugimendurik egon zenik, izan ere, baldintzak nahiko gogorrak ziren mota horretako mobilizazioak emateko. Garai hartako estatu mota eta legedia azterturik, aurrera eramaten ziren ekintza politiko guztiak disruptiboak zirela pentsatzera eramaten gaitu; ez zegoen inolako zirrikiturik aktibitate politiko legalak aurrera eramateko. Beraz, eraikuntza eta artikulazio fase batean aurkitzen da Euskal Herrian, non jardun politiko guztiak kriminalizaturik zeuden.

Gizarte zibilaren indarra eta erakunde armatuaren agerpena (1970-73)

70. hamarkadaren hasieran Euskal Herrian gizarte zibila mugimendu ezberdinetan artikulatuta zegoen dagoeneko. Horrela, estruktura ekonomiko moderno batek (industrializazioa, kapitalismo orokortua) 60. hamarkadan eragindako dinamikek bere ondorioa izan zuten hurrengo urteetan. Gainera, erbestean zeuden aktore politiko ezberdinak Euskal Herrira begiratzen hasiko dira, izan ere, frankismoaren amaiera oso gertu ikusten zuten. Horien artean 1959an sortutako ETA dago, zeinak estrategia politiko eramateaz gain, praxi armatua praktikatzen hasi zen (bere lehen hildakoa 1968an eragingo du). Horrela, frankismoaren

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

aurkako oposizioa oso indartsua izaten hasi zen eta hainbat dinamika sortzen hasiko ziren horren inguruan. Garbiena espiralen dinamika izango da, hau da, erregimenaren kontrako ekintzek errepresioa ekarriko ditu eta honek, aldi berea, ekintza indartsuagoak. Gainera, ekintza sozial oro (langile mobilizazioak edo auzoetako dinamika sinpleak) erregimenaren aurkako ekintza bezala interpretatua izaten zen. Zentzu horretan, esan bezala, presioa oso indartsua izaten hasi zen eta gainera, estatua indarra galtzen joan da hamarkada honetan zehar (Letamendia, 1994).

Gatazkaren erreperitorioari dagokionean, ia guztiak ekintza disruptiboak zirela esan genezake, izan ere, ez zegoen espaziorik aldarri legalentzako. Gainera, biolentzia espontaneoaren kopurua nahiko ugaria zen, polizia eta aktibisten arteko talkak ugariak ziren eta. Hala ere, biolentzia antolaturik oraindik ez zen ematen; ETAk ez du biktima kopuru esanguratsurik eragingo urte hauetan.

Erregimen aldaketa eta aktibitate armatuaren jarraipena (1974-1978)

Frankismoa bezala ezagututako erregimenaren aldaketa ikusten zen eta horren aurrean, antolakunde ezberdinak mugitzen hasi ziren. Euskal Herrian, EAJk izan zuen jarrera pasiboa zerbait aldatu eta modu aktiboan hasi zen parte hartzen. PCEk eta PSOEk, beraien aldetik, plataforma ezberdinak eratu zituzten, erregimenaren aldaketa ematen zenean egin beharreko ekintzak hobeto koordinatzeko. ETAREN aldetik, tentsioak existituko dira bere barnean eta bitan bananduko da: ETA(m) eta ETA(pm). Lehenengoek erakunde militarren independentzian sinetsiko dute eta bigarrenak, ordea, erakunde politiko eta militarren arteko batasun organikoaren alde agertuko dira. Azken finean, trantsizio politikoaren gaineko eztabaida bat zen, trantsizio horren aurrean gauzatu beharreko enfoke logistikoaren gaineko eztabaida estrategikoa hain zuzen ere. Mugimendu sozialak eta oro har, Euskal Herria erregimen aldaketaren alde zegoen; mobilizazioek eta giro sozialak hori erakusten zuten (Casanova, 2007). Hala ere, aldaketa horren sakontasuna nolakoa izango zen ez zegoen argi eta beraz, interpretazio ezberdinak egon ziren. ETAREN jarrera hasiera batean egokitze estrategiko eta barne trantsizio batekoa izan; hala ere, trantsizio teoriko hori eman bitartean ekintza politiko eta militar ugari eraman zituen aurrera, gatazka sozial handiko garai izanik.

Nahiz eta hasieratik ikusi trantsizioa ez zela euskal mugimendu sozialek eta ETAk nahi zuten markoa, soilik 1977ko hauteskundeak eta 1978 konstituzioaren ondoren aurkeztu zuten jarrera tinkoa. Horren harira, KAS alternatiba plazaratu zuten 1978an (nahiz eta lehenengo bertsioa 1976 izan) hainbat eragile sozial, alderdi politiko eta armatuek, negoziatzen ezinak ziren puntu batzuk aurkeztuz (Casanova, 2007):

- Askatasun demokratikoak.
- Amnistia, Preso Politikoen askatasuna.
- Estatuko polizia indar zapaltzaileen desegitea.
- Alderdi politiko guztiak legezztatzea, independentistak barne, euren estatutuak aldatu gabe.
- Langile klasearen bizi-egoera hobetzea.
- Euskadiren subiranotasun nazionala onartzea.
- Hego Euskal Herrirako autonomia zabaleko erregimena eratzea.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Gatazkaren errepertorioari dagokionez, intentsitate handiko garaia izango da. Ekintza legal (estatuaren izaera aldatu zen), disruptibo eta bortitzak erabili ziren. Biolentzia espontanea normala izango zen gizartean, izan ere, estatuarekin ematen ziren talkak ugariak ziren. Gainera, ekintza armatuak eta hilketak ohikoak egin ziren. Nahiz eta Irlandan bezain argia ez izan, identitateek eta gizartearen sektoreek garrantzia handia zuten; horrela bada, gizarteak bortizkeria elementu zentral bezala hartu zuen ziklo honetan. Estatuarekin konfrontazio ziklo batean kokatzen zen une hartan bortizkeria, non sistema politikoan eragiteko elementu zentral bezala identifikatzen zen.

Aldaketa eza eta aktibitate armatuaren zertifikazioa (1979-1982...)

1979tik aurrera, trantsizioan jarrita zeuden itxaropenak guztiz deuseztatu ziren euskal mugimenduarentzat, baita ETarentzat ere. Horrela, oposizio paper bat jokatuko dute, estatuaren kontrako ekintzak aurrera eramanez. Legezketasunaren barruan arituko diren erakunde politikoak sortuko dira eta hori borroka militarrekin konbinatuko da; horrela, presio fronteak indartu eta zabalduko dira. Estatuak betetzen duen papera ikusirik, estrategia mota horren zertifikazio bat emango da. Horrela, nahiz eta Europa mailan mobilizazio zikloa amaitu, Euskal Herrian dinamika luzeago bat irekiko da; borroka politiko eta militarren bitartez negoziazio bat lortu nahiko da estatuarekin. Irlandaren kasuan bezala, ziklo mobilizatzailetik haratago doazen erro batzuk existitzen direnez gatazkan, logika luzeagoak garatuko dira.

Beraz, esan bezala, aktibitate legalak, disruptiboak eta bortitzak konbinatuko dira (KAS blokearen bidez) estatuaren gaineko presioa areagotzeko. Higadura gerraren logika aplikatuko da eta bortizkeriak gizartearen erdigunean egoten jarraituko du; 80. hamarkada odoltsuena izango da Euskal Herriko gatazkaren historia modernoan (Casanova, 2007). Hala ere, esan bezala, Irlandako kasua argiagoa da identitate eta komunitateen banaketei dagokionez.

	Jarrera eta jokabidea	Biolentzia mota
Gizarte zibilaren artikulazioa 1960-69	Eraikuntzarako joera, artikulazioa	Bortizkeria urria, ekintza disruptiboak nagusi
Gizarte zibilaren indarra eta erakunde armatua 1970-73	Presio politikoa eta erregimen aldaketa gertatzeko ekinbidea	Bortizkeria espontanea eta jokabide armatuen agerpena
Erregimen aldaketa eta aktibitate armatua 1974-78	Trantsizio estrategikoko fasea. Ondoren, estatuarekiko konfrontazioa	Bortizkeria espontanea eta talde armatuen aktibitatea
Aldaketa eza eta aktibitate armatuaren zertifikazioa 1979-1982...	Estatuarekin talka totala, baina espazio guztiak aprobetxatuz	Bortizkeria espontanea eta talde armatuen aktibitate bortitza

27

²⁷ 9. taula. Iturria: lanketa propioa da.

Agente armatuen agerpena

Euskal kasuaren analisia: ETA

Horrela bada, Europa mailako 4 mobilizazio ziklo horiek aztertu eta gero, euskal kasuan zentratuko gara. Euskal mobilizazio zikloaren analisisan esan bezala, nahiko kasu berezia da, izan ere, Espainiaren izaera garai hartan ez zen Europa mendebaldeko beste estatuen antzekoa. Beraz, mobilizazio ziklo hori erregimen aldaketa batekin konbinatu zen, baldintza berezi batzuk sortuz.

ETA testuinguru horretan kokatu behar dugu, hau da, alde batetik Espainiako erregimen aldaketan eta beste alde batetik, Europa mailan bizitzen ari zen mobilizazio ziklo orokorrarekin. Bi faktore horiek erabakigarriak izan ziren borroka armatuaren agerpenean, teorizazioan eta garapenean. Horrela bada, analisia 1970 urtearen ingurutik aurrera kokatuko dugu bi arrazoiengatik: alde batetik, mobilizazio zikloa urte horren bueltan hasten delako eta bestalde, orduan hasten delako ETA erakunde armatu bezala definitzen eta finkatzen.

Hau dena aztertzeko, beraz, agenda klasikoa erabiliko dugu. Aukera politikorako egitura (APE), marko diskurtsiboa, egituratze markoa eta gatazkarako ekintzen erreperitorioa kokatuko genituzke agenda klasikoaren dimentsio honetan. Honen bidez, testuinguruaren analisia burutzeaz gain, horrek erakundean eta bere sorrera eta garapenean izan zuen eragina aztertu dezakegu.

Aukera politikoen egitura

- **Aldagai egonkorak, epe luzeko aldaketak dituztenak.**
 - o **Estatu mota:** Bi aldagai aztertuko ditugu hemen: hauteskunde sistema eta lurralde antolaketa.

Hauteskunde sistemaren kasuan, hasiera batean Francoren erregimen politikoak guztiz ixten zuen elementua zen, izan ere, ez zegoen eskubide zibil eta politikorik. Trantsizioan sartzen garen heinean, hauteskunde sistemaren gaineko eztabaida konstante bat izan zen erregimen zaharraren sektoreen eta alderdi politiko berrien artean. Horrela bada, orduko hauteskunde legedia onartu²⁸ zen eta lehenengo hauteskundeetan parte hartu zuten alderdi andana gutxitu zen kongresuko ordezkarietan, horrela esparru politikoaren gehiegizko fragmentazioa oztopatuz. Hala ere, nazio periferikoetako alderdi abertzale eta erregionalistek errepresentazioa lortu zuten eta handik aurrera ahotsa izango zuten trantsizioa burutzean. Gainera horrek legitimazio puntu bat emango zion sistema politiko berriari, izan ere, alderdi nazionalista batzuk parte hartuko zuten prozesu horretan,

²⁸ D'Hont sistemaren bidez egindako sistema proportzional bat adostu zen eta 350 diputatu izango zituen kongresu bat eratu. Probintziak ezarri ziren hauteskunde barruti bezala eta bakoitzean gutxienez 2 izango ziren aukeratuak (populazioaren arabera gehiago gehituko zitzaizkion). Haustura lerroa edo kongresuan sartzeko muga botoen %3an ezarri zen. Zerranda itxia eta blokeatuak izango zirela ere adostu zen.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

gehiengo parlamentarioak sortzen lagunduz erreforma politikoan aurrera egiteko.

Hauteskunde sistemak sortzen zituen desberdintasunek, ordea, alderdi handien alde jokatu zuten. Horren atzean dauden faktoreak, besteak beste, hauek dira: hauteskunde barrutien egituraketa, hauteskunde barruti batzuen pisuaren murrizketa eta beste batzuen gehiegizko pisua (landaguneena adibidez, non joera kontserbakorra nagusitzen den).

- Lurralde antolakuntzari dagokionean ordea, estatua guztiz zentralizatua zegoen trantsizioaren garaiaren hasieran. Hala ere, urteak pasatu ahala, deszentralizazio prozesua hasiko da eta adibidez, 1979 EAeko estatutua onartuko da²⁹. Lurralde historikoen marko juridikoa, ordea, 1983an osatuko da “Ley de Territorios Historicos” (LTH) delakoaren bitartez. Baina hurrengo pausua berriro ere zentralizatzailea izango da, izan ere, LOAPA³⁰ delakoa onartuko da, estatuko autonomia erkidego guztien eskumenak berdintzen zituen legea hain zuzen ere. Horrek, beraz, atzera pausua suposatuko du aldarrikapen abertzaleetan.
- **Eredu errepresiboa:** 3 aldagai daude kasu honetan, denak eredu eta praktika errepresiboekin lotuak.
 - Araudi antiterrorista eta errepresiboari dagokionez, frankismoaren azken urteetatik trantsiziora pausu handiak emango dira. Frankismoan, ekintza terroristak deiturikoak prozedimendu militarretik epaitzen ziren TOP³¹ delako epaitegian. 1975an terrorismotzat jo zitezkeen ekintzak gehitu egin ziren 10/1975 legearen bitartez eta gainera zigorrak asko gogortu ziren biktima polizia edota estatuaren ordezkari bazen, heriotza zigorra ere aplikatuz. Hurrengo urteetan zehar lege antiterrorista horiek indartuko zituzten beste neurri batzuk hartuko ziren: atxiloketak 7 egunez luzatuko ahal izango ziren, inkomunikazioa metodo bezala onartua izan zen legalki, komunikabideak itxi ahal izango ziren terrorismoarekin loturarik baldin bazuten...
 - Legedia antiterrorista honi, ekintza errepresiboak eta logika praktikoak gehitu behar zitzaizkion. Torturak, presentzia polizial oso altua eta politikoki aktibo zen populazio guztiari zuzendutako metodo errepresiboak konstante bat izan ziren Euskal Herrian urte haietan.
 - Azkenik, ezin da aipatu gabe utzi estatuak aurrera eramandako estrategia errepresiboaren barruan pisu handia izan zuen elementua,

²⁹ Euskal Autonomia Erkidegoko estatutua da, gaur egun oraindik indarrean jarraitzen duena. Gernikako estatutua bezala ezagutua izan da ere.

³⁰ “Ley Orgánica de Armonización del Proceso Autonómico” delakoa da. 1982an onartua izan zen PSOE eta UCDren akordio baten ondorioz. “Cafe para todos” bezala ezagutua izan da ere.

³¹ Tribunal de Orden Público. 1977 desagertuko zen eta urte berean Audientzia Nazionala sortu zen, antzeko funtzioak beteko zituena.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

gerra zikina alegia. GAL eta BVE bezalako talde parapolizialak dira horren adibide garbia.

- **Tolerantzia sinbolikoaren maila:** Kasu honetan, estatu errepresibo batez hitz egin behar dugu berriro ere, izan ere, espainiar estatuak ez zituen elementu sinbolikoak kontrolatzen eta beraz, politika erreprimizaile bat erabili behar izaten zuen. Beraz, tolerantzia maila nahiko baxua dela esan dezakegu bai frankismoan zehar (are baxuagoa) baita trantsizioan zehar ere. Horren adibide dira euskal kontzientzia kritiko kolektiboan oso indartsuak ziren bi egunetan (aberri eguna eta maiatzaren lehena) aurrera eramandako ekintzei estatuak emandako erantzun errepresiboak. Manifestaziora dei egiteak ere tolerantzia horren apurketa zekarren, estatuaren errepresioa azaleratuz. Trantsizioan ere horren aurrean aurkitzen gara, nahiz eta modu ez hain bortitzean ematen den tolerantzia baxu hori. Hori, hain zuzen ere, beste kontzeptu batekin lotu behar dugu: kapazitate baxuko estatuarekin³². Espainia kapazitate baxuko estatu bat da frankismoaren azken urteetan eta baita ere trantsizioan zehar, izan ere, politikoki eta sozialki aktiboak diren sektoreen ekintza politiko gehienak eskuetatik joatearen sentsazioa beti presente edukiko du. Soilik 1984 urtetik aurrera hasten da hori aldatzen, estatu boterea eta kontrola finkatzen hasten denean hain zuzen ere.
- **Aldagai ezengokorrak, epe ertain edo motzean aldaketak dituztenak.**
 - **Eliteak:** Eliteez hitz egiten dugunean, sistema politiko-ekonomiko-sozialean pisua duten aktoreez ari gara hitz egiten. Horrela, aktore horiek dituzten errekurtsioak eta aktore horien arteko erlazioek markatuko dute hein handi batean unean uneko egoera politikoa. 4 dimentsio ezberdin ditzakegu kasu honetan:
 - Politika publikoak aplikatzeko gaitasunari dagokionez, frankismoaren amaieran gaitasun nahiko baxuaz hitz egin behar dugu. Berdina gertatzen da trantsizioaren garaian, izan ere, azken finean trantsizioa aurreko erregimenaren kapazitate ezaren eta beherakadaren ondorio zuzena da. Esan bezala, trantsizioan borondate eta gaitasun handia erakutsi nahi da indar politiko ezberdinen artean akordioetara iristeko eta beraz, erreforma politikoarekin aurrera egiteko; horren ondorioz, sektore politiko guztiak integratzen saiatzeko, anbiguetate handia dago legeetan eta bere ezarpenean. Gainera, Suarezren bigarren gobernuan, eliteen arteko zatiketaren ondorioz, politikak aplikatzeko eta kontrolatzeko zailtasuna areagotu egiten da (militarrekin dauden arazoak adibide garbia dira). 23F kolpe gogorra izan zen gobernu horrentzat eta momentuko panorama politikoaren adierazle ezin hobea da. Ezegonkortasun horretan mantenduko da espainiar estatu demokratia liberalaren paradigma trinkotzen den arte, 1984-1987 urteetatik aurrera alegia.

³² Kontzeptu hau ez dago hertsiki loturik agenda klasikoak definitzen duen marko analitikoarekin. Hala ere, oso baliagarria da testuinguru konkretu batean estatuaren izaera definitzeko.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

1982tik aurrera, beraz, PSOEren garaipenarekin politika publikoak aplikatzeko gaitasuna handituz joango da: espainiar estatua OTAN eta CEEen sartuko da, prozesu autonomikoa itxiko da, frankismotik zetozen arazoak konponduko dira udalerrri mailan, estatuaren egiturak aldaketak daude... Honek guztiak, ordea, EAEn zegoen egoerarekin topo egiten du, izan ere, testuinguru kontraesanezko baten aurrean aurkitzen gara. EAEn egoera nahiko zaila zen eta estatuak gaitasun gutxi erakusten zuen bere erabakiak aurrera eramateko: 1983ko uholdeak oso gogor jo zuten gizartea, krisi industrialak eta egokitzapen ekonomikoak erantzun oso bortitza izan zuen langileriaren aldetik, ETAren gaitasun operatiboa oso altua zen... Beraz, nahiz eta Espainia mailan gorantz joan estatuaren gaitasun hori, EAeko markoan hori ez zegoen argi.

- Eliteen arteko zatiketei dagokionez, nahiko altua zela esan daiteke. Hasiera batean, trantsizioaren lehen zatian eliteek kexa handiz onartzen dute erreforma politikoa (hala nola, koroak, armadaren zati batek, burgesia handiak edo estatuaren apartuak), baina apurka-apurka hori aldatzen joango da:
 - Armadaren artean kontrako ahotsak altxatzen dira, trantsizioa baldintzatuko dutenak argi eta garbi.
 - Monkloako itunak³³ apurtzen joango dira.
 - 23F. Konstituzioan agertzen ziren eskubideetako batzuei topea jartzearen aldeko sare bat osatzen joango da. Sare hau AP, UCDko sektore batzuk eta ejertzitoko goi karguek osatzen dute.
 - UCDko gobernuan krisia gertatzen da, Suarezren dimisioarekin amaituko dena.
 - PSOEren eta PCERen arteko lehiak ohikoak bihurtuko dira.
 - UCD-AP-PSOERen arteko aliantzak egongo dira gai batzuetan eta horrek nazionalisten kontrakotasuna ekarriko du. Kasurik argiena LOAPAren auzia izan zen.

1984tik aurrera jaisten joango da eliteen zatiketa hau, izan ere PSOEko gobernuak kontsentsu minimo bat sortuko du estatu mailan. Gainera, PSOEren gobernu horrek ezkerretik zetozen ahots kritikoak lasaituko ditu. Bestalde, esan beharra dago Euskal Herrian ETArekiko egoera konplikatua zela, izan ere, ez zegoen erakunde armatuaren kontrako ahots bateratu bat. AP-PSOE-PNVren artean ezberdintasunak

³³ Monkloako itunak, 1977an sinatutako akordio batzuk izan ziren. Akordio horiek, alderdi politikoaren, enpresarioen eta sindikatuen artekoak izan ziren. Hauen bidez, erreforma politikoa abiarazteko testuinguru aproposa bilatzen zen eta egonkortasun ekonomiko bat ere bazegoen helburuen artean.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

zeuden indarkeria politikoaren gaia tratatzeko orduan. Hori Ajuriaeneko Paktuekin³⁴ amaituko da hein handi batean 1988 urtean.


- Eliteekin jarraituz, lerrokatzen ezegonkorrak daudela esan beharra daukagu. Aurretik esan bezala, trantsizioko itun difuso horiek aurrera doazen heinean, eliteen arteko akordioak nahiko anbiguoak bihurtzen dira. Gai batzuetarako UCD-AP-PSOE akordioak lortzen diren bitartean, beste batzuetan hiruen arteko lehia nahiko handia izango da. Horrek adibiderik garbiena, PSOEk UCDeen barne krisia aprobetxatzea izan zen eta horrela, 1982ko hauteskunde horiek irabazi ahal izatea. Baina, berriro ere, aurretik esan bezala, hori aldatzen eta egonkortzen joango da 1984tik aurrera.
- **Oposizioa:** Beste aldeari dagokionez, hau da, trantsizioari eta erreformari kritikak egiten zizkiotenen aldean, 4 aktore bereizi ditzakegu
 - Frankisten aldetik, egoera dikotomiko batean aurkitzen dira. Alde batetik, beraien boterea nahiko mugatua zen, izan ere, *bunker* deituriko sektoreak ez zuen boterera sartzeko aukera handirik. Hala ere, beste alde batetik, modu ez-zuzen batean, hau da, zeharka, influentzia asko zuten sektore batzuegan, hala nola, ejertzitoan edota udalerrietako elite lokaletan.
 - Langile erakundeei dagokionez, beraien influentziak gainbehera bat sufrituko du, izan ere, trantsizioaren hasieran nahiz eta legalki ez zuten boterera sarbiderik kalean presentzia nabarmena zuten. Hori PCEn legeztapenarekin aldatzen hasiko da; botere “ofiziala” igotzen den heinean, sindikatuak eta alderdiek afiliazioa galduko dute. Gainera, PCEn barruan liskarrak egongo dira eurokomunismoa defendatzen zutenen eta sobietar ereduaren alde zaudenena artean. PSUCen barruan ere liskarrak egongo dira. PTE eta ORT bezalako alderdiek beraien indarra galtzen hasiko dira eta masa mugimenduak, orokorrean, beheranzko joera izango dute.
 - Nazionalismo burgesaren artean (batez ere PNV eta CIU), beraien influentzia oso handia izango da, batez ere beraien lurraldeetan. Gainera, Euskal Herriko eta Catalunyako elite ekonomikoen babesa izango dute, beraien indarra oraindik gehiago handituz. Hala ere, euskal kasuan PNV eta ETAn arteko liskarrak egotean, abertzaletasunaren indarra segmentatua eta une batzuetan dispersatua ikusiko da.
 - ETAn kasu partikularrean, bere influentzia eta boterea 1987ra arte nahiko handia dela esan daiteke. Argeleko negozioetatik aurrera hori jaisten hasiko da. Ez dugu ahaztu behar erakunde armatu honek trantsizioaren aurka zauden sektoreen babesa jaso zuela eta aliantza nahiko egonkorrak mantendu zituela horren ondorioz. Langile mugimenduaren, euskal abertzaletasunaren eta nazioarteko hainbat

³⁴ 1988an sinaturiko itun bat izan zen eta alderdi hauek parte hartu zuten: AP, PSOE, CDS, PNV, EA eta EE. Bertan, indarkeriarekin amaitzeko puntu komun batzuk finkatu zituzten.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

erakunderen babesak lortzea, horrek bere influentzia handitzera eramane zuten. Hori 70 eta 80 hamarkadetan zehar luzatuko da eta hortik aurrera jasotzen zituen babesak blokeatuak ikusiko ditu gradualki.

- Ondorioz, taula hau eraiki genezake APEn nolabaiteko laburpena egiteko. Laburpen bat denez, gauza batzuk bere testuinguruan jarri behar dira eta ez dira kategoriatu absolutu bezala ulertu behar:



³⁵ 10. taula. Iturria: lanketa propioa da.

Marko diskurtsiboa

APE aztertu ondoren, diskurtsoa aztertzeari ekingo diogu. Diskurtsoa, azken finean, erakunde batek errealitatearekiko egiten duen interpretazioa da, maila teoriko batean garatzen dena eta ondoren, maila praktikoan erreflexua duena. Agenda klasikoaren ikuspegitik, hiru elementu dira aztertzeokoak marko diskurtsiboan: injustizia markoa, pronostiko markoa eta motibazio markoa. Hala ere, modu dialektiko eta dinamiko batean ulertu behar dira azpikategoria hauek, izan ere, hiruek osatzen duten osotasuna hartu behar dugu kontuan (Hunt, Benford, Snow; 1994). Horrela bada, hiruak batera aztertuko ditugu.

Beraz, hauek aztertzeo, aurretik aipaturiko testuinguru historikotik aterako gara (1970tik aurrera kokatu duguna), izan ere, V. asanbladara egingo dugu jauzi; bertan ezarri ziren ETAK erabiliko zituen kontzeptu eta elementu teoriko nagusiak finkatu ziren. Hala ere, 1970tik aurrerako egoera ere aztertuko dugu, nahiko garrantzitsua delako behaketa hori dinamika orokorra ulertzeko.

- **V. Asanblada (1966-1967). Erakundearen oinarri ideologikoa.**

Marko diskurtsiboaren ikuspegitik, ETAK egin zuen berrikuntzarik garrantzitsuena subjektu berri baten definizioa izan zen: “Pueblo Trabajador Vasco” delakoarena alegia. Horrela, erakunde armatuak bi tradizio historiko biltzen zituen bere baitan: alde batetik, aurreko mobilizazio ziklotik jasotako nazionalismoa eta beste alde batetik Europan pil-pilean zeuden ideologia marxisten eragina izan zuen. Beraz, subjektuaren bidez ideologia politikoari hurbilpen bat egin geniezaioke; espazio politiko berri bat sortu zen hortik aurrera, abertzaletasun iraultzailearena hain zuzen ere.

Gainera, etniaren gaineko hausnarketa ere plazaratu zen. Euskal etnia gizaki kolektibo jakin bat bezala definitzen zuten, prozesu historiko baten ondorio zena eta bere funtsezko elementua euskara zena. Horrela, enfasia hizkuntzan jartzearekin batera, aukera politikoak ireki egiten zituen, izan ere, euskal nazionalismoak hasiera batean izan zuen diskurtsoaren arabera, arraza zen elementurik garrantzitsuena.

Estrategiaren mailan, abangoardiaren ideia garatu zen eta erakundearen egitura 4 fronteetan banatu zuten: politikoa, langilea, kulturala eta militarra. Apustu honek, Vietnameko esperientziarekin zuen zerikusia izan ere, Ho Chi Minhek planteamendu berdina erabili zuen. Horrela, deskolonizazio prozesuek eta hirugarren munduan gertatzen ari ziren iraultzek ETAn zuten eragina agerian jartzen zen. Argelia, Kuba, Vietnam edota Tupamaroen esperientziek Europa mailan kosmobisio komun bat karri zuten agerian ezker erradikalean eta ETA olatu horretara igo zen ere.

Azkenik, asanbladan zehar marxismoaren eta interpretazio sozialista ezberdinen gatazkak egon ziren. Azkenean, ETAK “Movimiento Socialista de Liberación Nacional” bezala definitu zuen bere burua eta abertzaletasun iraultzailea bere ideologia izango zela adostu zuen. Hala ere, eztabaida hauek klasiko bat izango dira hortik aurrera ETAn baitan, banaketa eta gatazka asko ekarriko dituen.

- **Frankismoaren azken urteak (1973-1975)**

1973 eta 1974 urteetan VI. asanblada ospatuko da eta berriro ere sektore militarista eta obreristen artean tentsioak sortuko dira (tentsio horietatik sortuko dira LAIA eta LAB). Tentsio horiek gora egingo dute Carrero Blancoren hilketa eta gero, izan ere, fronteetan banaturiko estrukturan gainbehera etorri zen; fronte militarrek egiten zituen ekintzek beste fronteetan eragina zuten zentzu errepresibo batean eta horren ondorioz ezin zuten beraien lana modu egonkor batean garatu. Gainera, asanbladaren

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

bigarren zatian eszizio berri bat gauzatu da: ETA(m) eta ETA(pm). Bien artean ezberdintasun diskurtsiboak egon arren, ideologia baino estrategia zen mahai gainean zegoen kuestioa.

Horrela, ETA(pm)k demokrazia burgesaren etorrera aurreikusten du eta beraz, masa erakundeen garrantzia nabarmentzen du. Horrela, masa borrokaren eta borroka militarren arteko artikulazioa ezinbestekotzat jotzen du; ondorioz, hirugarren munduan gertatu ziren iraultzen ereduak alde batera uzten du, izan ere, beraien ustetan ez zen posible eskema hori Europara ekartzea orduko indar korrelazioekin.

ETA(m)k, bere aldetik, masa erakundeen beharra ikusten badu ere, borroka militarrean zentratzea ezinbesteko paradigma bezala du. Horrela, ETA erakunde bezala borroka ilegal horretan zentratu behar dela ikusten du eta beste batzuen eskuetan uzten du borroka instituzionala eta masa borroka.

- **Trantsizioa (1975-1979)**

Trantsizioaren garaia bi erakunde ezberdinekin hasten da ETArenezat. Hala ere, testuinguruaren eta momentuko une politikoaren ondorioz, bi adarren arteko batasun diskurtsibo bat existituko da. Biek ala biek konstituzioa osatzeko negoziazioak ukatuko dituzte, baldintzarik gabeko amnistia eskatuko dute edota alderdi politiko guztien legeztatpena eskatuko dute. Nahiz eta hurbilpen hau gertatu, oraindik nahiko handiak ziren ETArenez bi adarren arteko ezberdintasunak.

ETA(m)k, bere aldetik, monarkia parlamentarioa frankismoaren beste fase bat bezala identifikatuko du eta beraz, borroka armatuaren indartze bat planteatuko du hori salatzeko. Bestelako erakundeak (masa, politiko eta langileenak) indartzea ere planteatuko du, baina betiere borroka instituzionalari uko eginez. ETA(pm)-k bere aldetik, borroka molde guztietara irekita dago hasiera batean eta trantsizioaren hasiera estrategia berri baten beharra plazaratzen du. Horrela, borroka armatua praktikatzear gain, borroka instituzionalaren beharra ikusten dute baina instituzioen erabilpen taktiko bat ere eginda.

1978ko konstituzioaren onarpena bientzat inflexio puntu bat izango da, izan ere, borroka armatua praktikatzen jarraitzen dute biek ala biek. Hala ere, aurretik esan bezala, bi erakundeen arteko ezberdintasuna nabaria izango da hortik aurrera.

- **Demokrazia liberalaren garapena eta trinkotzea (1980-1987)**

Ikusi dugun bezala, ETArenez bi sektoreen diskurtsioak nahiko modu linealean mantentzen dira frankismoaren azken urteetan eta trantsizioan zehar (nahiz eta ezberdintasun batzuk bazeuden). Hala ere, 1980 urtetik aurrera hori aldatzen joango da modu progresibo batean; estrategian eta injustizia markoa identifikatzerako orduan aldaketa nabarmenak emango dira bi frakzioen artean.

Herri Batasuna sortzen da ETA(m)ren sektore politiko bezala eta antolakunde horrek sufritzen duen errepresioa erakunde armatuaren tesiak baieztatzeko balio izan zuen, zeinak esaten zuten Euskal Herria gerra egoera iraunkor batean aurkitzen zela. Horrela, ETA(m)k KAS alternatiba³⁶ negoziatzea ikusten zuen irtenbide bakarrak bezala.

³⁶ KAS, euskal antolakunde ezkeriarren koordinatzaile sortu zen marko bat izan zen. Hasiera batean, ETArenez bi frakzioak egon arren ETA(pm) atera egin zen. Marko honetan borroka armatua uzteko baldintza batzuk planteatu ziren, KAS alternatiba bezala ezagutua izango zen planteamendua.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

ETA(pm)k bere aldetik, nahiz eta momentu batean borroka armatua praktikatuz, borroka politiko eta instituzionalean zentratuko da ere bai. Hortik aurrera, barne tentsioak gorantz joango dira, izan ere, borroka armatua uzteko edo jarraitzeko eztabaidak konstante bat izango dira. Erakundearen gehiengoak 1982an utziko du borroka armatua, nahiz eta aktibista nukleo batzuk geratuko dira aktibo.

Egituratze markoa

Behin diskurtsoaren eta ideologiaren atala aztertuta, hori errealitatean nola aplikatzen den ikusiko dugu. Horretan sakontzeko elementu bat, egituratze markoa da, hau da, antolakundea nola egituratzen zen ikustea. Nahiz eta 1970 hasieran eta 1980an zehar estruktura marko berdina ez eduki, analisia bigarren zati horretan zentratuko dugu; izan ere, KAS blokea izan zen teorizazio trinkoago bat eta egonkortasun apur bat lortu zuen markoa.

Horrela bada, lehen esan dugun bezala, hasiera batean ETA fronteetan bananduta zegoen, Hoc hi Minhek Vietnamen jarraitu zuen ereduak aplikatuz. Hala ere, dinamika hori VI asanbladan hausten da, izan ere, ETA(m) eta ETA(pm)re arteko zatiketa etortzen da. Horrela, lehenengoak borroka armatuaren eta masa borrokaren arteko ezberdintasuna planteatzen zuen bitartean, bigarrenak antolakunde politiko-militar baten beharra ikusten zuen borroka mota guztiak koordinatzeko. Horren arabera, ETA(pm)k bere estruktura politiko propioak sortu zituen bitartean, ETA(m)-k ez zuen inongo planteamendurik teorizatu horren inguruan, izan ere, borroka armatua zentratu zen. Hala ere, 1974an EHAS erakunde politikoa sortuko da modu autonomo batean eta ETA(m)-ren inguruan kokatuko da.

Aurrera jarraituz, 1975 KAS jaioko da koordinadora baten modura; aldi berean, eztabaida sustatzeko gune ere bihurtuko da. Bertan euskal antolakunde iraultzaile guztiak biltzeko asmoa zegoen (bi ETAK barne) eta hasiera batean horrela izan zen. Bitartean ETApm bere VII. asanbladan alderdi baten sorkuntza teorizatzen du, estruktura militarretik aldentuta. Une horretan borroka armatua "masa borrokaren erretagoardia" izango zela esaten du, dinamika orokorraren baldintzapean ezarriz. Beraz, 1977an EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) sortuko da, ETA(pm)ren inguruan arituko dena lanean. Honek KASen barruan eztabaidak gogorrak sortuko ditu, izan ere, aipaturiko alderdia hauteskundeetara aurkeztuko da KAS bloketik egiten ziren eskakizunak kontuan hartu gabe (amnistia osoa eta eskubide zibil eta demokratikoak, bestak beste). Horrela bada, ETA(pm)k KAS blokea utziko du.

Urte horretan bertan Altsasuko Mahaia³⁷ osatuko da, udal hauteskundeetarako eta autonomia estatutuaren gaineko planteamendua prestatzen hasteko marko bezala definitzen zena. EIAk, ordea, Gernikako Estatutua babestuko du beste eragile politiko iraultzaileen iritzia kontuan hartu gabe. Haustura honen ondorioz, Altsasuko Mahai hura Herri Batasuna (HB) koalizioan bilakatuko da. Horrela, ezker abertzalea bitan bananduta geratuko da: alde batetik EIA eta ETA(pm)k osatzen zuten blokea eta beste alde batetik HBk eta ETA(m)k osatzen zuten blokea.

³⁷ Alderdi politiko hauek hartuko dute parte: HASI, LAIA, ESB-PSV, ANV eta EIA. Hala ere, EIA kanpoan geratuko da Gernikako estatutua babestean, izan ere, estatutu honek gaur egungo EAE eta Nafarroa bitan banatzen zituen.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan


Hala ere, bigarren honek ere krisi bat sufrituko du, izan ere LAIA eta ESBk 1980an Herri Batasuna utziko dute. Mahai gainean jartzen zuten arrazoia, KASek koalizio politikoan, hau da, HBn protagonismo gehiegi hartu zuela zen; hori askok ETA(m)ren influentzia bezala ikusi zuten. Horrela bada, ezker abertzalearen sektore hau horrela egituratuta geratuko zen: ETA(m) erakunde armatua bezala; HB masa borroka eta borroka instituzionala garatzeko eragile gisa; HASI abangoardiako alderdi politiko bezala; eta azkenik, KAS zuzendaritza bloke eta koordinatzaile bezala.

Egoera hau 1983an aldatu egingo da, izan ere, 1983an KASek bere estruktura indartzearen beharra plazaratzen du. Orduko antolakuntza egoera ahula ikusirik eta ofentsiba fase baten hasiera zela kontuan hartuta, erabaki hori hartzen da. Horrela *Ponencia KAS* deituriko planteamendua onartuko da, ezker abertzalearen organigrama horrela egituratuko duena:

- KAS blokea Zuzendaritza bloke bezala egituratzen da eta askapen borrokaren abangoardia eta koordinazio politikoaren arduraduna bezala definitua izango da. Dinamizazio ardurak ere izango ditu.
- ETA Borroka espresiorik gorenena bezala ezagutua izango da eta estatuarekin konfrontazioan, plano goren batean kokatuko da. Askapen borrokaren buruzagi izango da. Garrantzitsua da esatea ETAr ez zaiola aipamen espliziturik egiten KAS ponentzian, nahiz eta zeharka bere presentzia argi uzten den.
- HASI Abangoardiako alderdi politiko bezala definitzen da Herri Batasunaren barruan. Lerro politikoaren teorizazioa eta aktibismo politiko guztia globalizatzea izango dira bere eginbehar nagusiak.
- Jarrai Gazte mugimenduaren dinamizazioaz eta gidaritzaz arduratzen den antolakundea da. Hala ere ez da alderdi politikoaren azpitik dagoen erakunde bat, baizik eta bere esparru sozialaren erreferente eta zuzendaritza blokearen parte bezala ulertua izan behar da.
- LAB Langile mugimenduan eta sindikalgintzan lan egiten duen antolakundea da.
- ASK Herri mugimendua dinamizatuko duen espazioa izango da, bere osotasunean.
- Mujeres KAS Borroka feministan lan egiteko antolakunde bezala sortuko da. Aizan bezala ezagutua izango da eta beranduago, Egizan bezala.

Horrela bada, KASen ezaugarriak HASIren 1978ko I. kongresuan erabaki ziren: egonkortasuna, nortasuna, Euskal Herri Langilearekiko koherentzia eta berdintasunezko antolakuntza harremanak. Proiektuaren garapen guztia, ordean HASIren 1983ko II. Kongresuan erabakiko da: Euskadi euskaldun, bateratu, independente eta sozialista bat. Azkenik esan beharra dago KAS blokea estruktura politiko bat izan arren, filosofia politiko-militar batean zentratzen zela eta borroka ilegalak eta legalak konbinatzeko gaitasuna zuela.

Hau izango litzateke egituraren laburpentxo bat:



Gatazkaren errepertorioa

Azkenik, gatazka kudeatzeko eta aurrera eramateko elementua aztertzea geratzen zaigu agenda klasikoarekin amaitzeko. Azken atal honetan, beraz, ETA eta ENAM³⁹ guztiaren ekintza kolektiboa aztertzeari ekingo diogu. Hala ere, ulertu behar dugu betiere ekintza kolektiboa agentzien eta estrukturen arteko erlazio dialektikoa dela eta beraz, testuingurua eta ETA aztertu behar ditugula osotasun batez ulertzeko unean uneko egoera.

ETA eta euskal askapen mugimendu guztian fase eta une ezberdinak existitu izan dira ekintzak teorizatze orduan. Teorizazio hau, jakina den bezala, aukera politikoaren egiturarekin, marko diskurtsiboarekin eta antolakuntza markoekin hertsiki loturik dago. Horrela, hiru etapa ezberdinu ematen dira ETAREN baitan 1970tik. Lehenengoaren kasuan (1970-1973 ingurutik 1975ra), diktaduran frankista boterean egotearen ondorioz, ekintza guztien izaera baldintzatzen zuen elementu determinatzaile bat existitzen zen. Bigarren etapa (1975-1979) trantsizioa da eta bertan, eztabaida eta egokitzapen estrategikoen garaia ematen da; horrela, dibertsifikazio eta interpretazio ezberdinak ematen dira demokrazia liberal batek ireki zitzakeen aukera egitura ulertzerako orduan. Azkenik, demokrazia liberalaren egonkortzea dator (1980-1984 ingurutik 1987ra) eta bertan estrategia argi bat du definitua ETAK eta ENAM guztiak; beraz, ekintzarako errepertorio definitu bat existituko da ere.

- Frankismoaren azken urteak (1970-1973 ingurutik 1975ra)

Momentuko erregimen politikoak, inolako protestarik eta biderik bermatzen ez zuenez, eragile politiko eta sozialek garatzen zituzten ekintza guztiak disruptiboak eta bortitzak ziren; beraz, une hartako “status quo”aren kontrako ekintza guztiak kokatzen dira aurretik aipaturiko bi tipologia horietan eta ez dugu ohiko ekintzarik aurkitzen. Bestalde, erradikalizatorako joera eta biolentzia erabiltzeko hautua nahiko ohiko izango da horrelako testuinguru batean. Hau adibide garbi bat izan daiteke ikusteko nola estrukturek eta eliteen egiturak agenteen ekintzak baldintzatzen dituzten modu garbi batean.

ETArentzat konkretuki nahiko garai definitua izango da; beste modu batera esanda, bere ekintzak eta filosofia aktiboa paradigma soil batetan zentratzen da. Paradigma

³⁸ 4. ilustrazioa. Iturria: lanketa propioa da.

³⁹ Euskal Nazio Askapen Mugimendua

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

hori “ekintza-errepresioa-ekintza” zirkulu esponenziala da; horren bitartez, ekintza batek errepresioa sortuko luke eta aldi berean, ekintza gehiago eta indartsuagoak aurrera eramateko aukera. Honela estatuarentzat ezengokorra eta jasan ezina zen egoera bat sortu nahi zuen ETAk. Horrela, ETAk ekintza militarrek (bortitzak) eta politikoak (disruptiboak, izan ere, ezin dugu ahaztu fronteetan egituratzen zela eta ez zela soilik borroka armatura mugatzen) aurrera eramaten zituen. Garai hartako kezkarik handiena ETArentzat, bere ekintza armatuak herri eta langile dinamiketan txertatzea zen, aurretik aipaturiko zirkulu sortzera bidean. Barne tentsioak existituko dira borrokek txertatzeko saiakera horretan eta adibide garbiena Carrero Blancoren hilketan dugu 1983an. Ekintza honek fronte militarren eta langile fronteen arteko desadostasunak ekarriko ditu, izan ere, modu ezberdinean ulertuko dugu sektore bakoitzak hilketan honek ekarriko dituen ondorioak. Gainera, ekintza hau izango da fronteetako estruktura eztabaidan jarriko duena eta ekintza erreperitorio ezberdinen arteko artikulazioaren gaineko hika mikak sortuko dituena.

- **Trantsizioa (1975-1979)**

Garai hau eztabaida eta trantsizio estrategikoaren denbora tarte bezala ulertu behar dugu, izan ere, diktadura batetik demokrazia liberal baterako egokitzapen tarte izan zen. Hala ere, “trantsizio estrategikoa” esaten dugunean, modu dinamiko batean ari gara hitz egiten, izan ere, ETAk aurrera eramandako ekintzek ez zuten etenaldirik sufritu. Esan bezala, aldaketa edo egokitzapen estrategiko horretan estruktura aldaketek izugarriko pisua izan zuten, izan ere, aldaketarik handiena orduko sistema politikoan gertatu zen. Aldaketa horrek ekintzen erreperitorioa zabaltzea ekarri zuen, hau da, ekintza konbentzionalak edo legalak garatzea posiblea izango zen dagoeneko. Beraz, ETAREN barruan ematen ziren eztabaidak ekintza legal, disruptibo eta bortitzak artikulatzearen inguruan ziren.

Eztabaida eta tentsio horien ondorio ETA(m) eta ETA(pm)ren arteko zatiketa dugu. Azken finean zatiketa hau ekitzen markoa definitzerako orduan emandako zatiketa izan zen, hau da, gatazka erreperitorioen artikulazio estrategikoa nola garatzearen ondorioz emandako eztabaiden fruitu. Batzuek ekintza guztiak koordinatzeko batasun organikoa defendatzen zuten bitartean, besteek zatiketa organikoa defendatzen zuten. Horrela, euskal ezker iraultzailean ekintza legal eta disruptiboak garatzen zituzten aktore gehiago azalduko dira bizitza politikoan. Beraz, ekintza bortitz, disruptibo eta legalen arteko nahasketa bat egongo da, baina betiere aurretik aipaturiko bi erakunde armatuen ezberdintasun estrategikoak kontuan hartuta.

Gainera, aldaketa oso garrantzitsu bat ematen da, izan ere, ez da posible ikusten “ekintza-errepresioa-ekintza” zirkulu horretan gorantz joatea eta beste bide bat hartuko da: negoziazioaren bidea hain zuzen ere. Demokrazia liberalak zirkulu esponenzial bortitz hori garatzeko oztopoak zituen eta beraz, presio armatu, sozial eta politikoaren bidez negoziazio batzuk behartzeko aukera ikusi zen.

- **Demokrazia liberalaren trinkotzea (1980-1984 ingurutik 1987)**

Nahiz eta denbora tarterik luzeena izan eta jardura politiko, armatu eta soziala oso garrantzitsua izan, ekintzen erreperitorio aldetik ez da oso garai aberatsa. Ekintza markoa aurretik finkaturik zegoen eta indar guztia aurretik aipaturiko negoziaketa horiek behartzera zegoen enfokaturik. Gainera, marko diskurtsiboa ere o nahiko garaturik zegoen garai honetan eta benetan teorizatuko den gauza bakarra

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

antolakuntza markoa izango da. Negoziaketak lortzeko KAS alternatibaren inguruan bira egingo duen planteamendu bat erabiltzen da, ETAk bere borroka armatua uzteko eskakizunen inguruan alegia.

Beraz, ekintzen errepertorioa ENAMen inguruan horrela geratuko litzateke: ETA (borroka armatua eta beraz, bortitza); HB eta HASI (antolakunde politikoak, espazio legalak aprobetxatuko dituztenak eta beraz, ekintza konbentzionalak erabiliko dituztenak); eta azkenik herri mugimenduan txertatuta dauden antolakundeak, hau da, Jarrai, Egizan... (ekintza konbentzional eta disruptiboak garatuko dituztenak). Horiek guztiak, aurretik esan bezala, KASen bidez koordinatuko dira eta bertan ekintza errepertorio eta mota guztiak batzen saiatuko dira; hala ere, ETA beti plano independente batean kokatuko da.

Ondorio nagusiak

Subjektu, identitate eta masa-bortizkeria harremanaren garrantzia ekintza kolektibo bortitzean

Mobilizazio zikloen eta agente-estatuaren arteko talka bortitzaren arteko erlazioa eta bertatik sorturiko dinamika eta elementuak izan ditugu gure analisi konparatuan. Horrela bada, ekintza kolektibo politikoko zati oso garrantzitsua izan den eta den elkarrekintza mota honek hainbat aldagai eta elementu bereizgarri ditu. Geure kasuan, hau da, marraztu ditugun 4 agertokietan, mobilizazio zikloen eta elkarrekintza bortitzaren artean dauden erlazio horietan zentratu gara. Hala ere, dimentsio konparatibo guztietan bezala, kasu bakoitza definitzeko beste kasuetara jo behar dugu; horrela, alderaketa horretan, aurkitzen dugu kasu bakoitzaren bereizgarritasuna eta orokortasuna. Bi norabide horietan jardungo gara azterketaren emaitzak azaltzeko.

Masa mobilizazioetatik borroka armatura. Masa-bortizkeria lotura.


Hasieran planteatu ditugun hipotesiak berreskuratuz eta hona ekarriz, lehenik eta behin mobilizazio zikloen eta borroka armatuaren arteko erlazioak nolakoak zen aztertzen genuen. Ildo horretatik, mobilizazio zikloen intentsitatea hartzen zen elementu klabetzat borroka armatuaren fenomeno azaltzeko. Mobilizazio zikloen analisisan ikusi bezala, borroka armatuaren fenomeno (bere adierazpen modernoan⁴⁰ ulertuta betiere) oso erlasionaturik aurkitzen dugu masa mobilizazioekin; horrela, bi fenomeno horiek ez dira modu isolatuan aurkeztzen 4 kasuetan. Alemaniaren eta Italiaren kasuan nabarmena da nola masa mobilizazio baten ondoren (oro har 1967-68-69 urteetako ikasle mobilizazioen ondoren) ezker berriko erakunde politikoak errotzen joaten diren gizartean zehar. Gainera, errotze garai horrek masa mobilizazioa jaisten diren uneak izan ohi dira. Testuinguru horretan, erakunde politikoekin batera, bortizkeria erabiliko duten erakundeak errotzen joago dira eta horien artean, hain zuzen ere, borroka armatua praktikatu dutenak. Beraz, masa esperientzia horien ondoren errotzen diren gatazkarako paradigmaren artean bortizkeria eta aktibitate armatua aurkitzen ditugu. Irlandako kasuan, masa mobilizazio hori modu nabarmenean ematen da NICRaren bitartez (katolikoen eskubide zibil eta politikoen alde jarduten zen mugimendu politikoa), baina ezberdintasunak aurkitzen ditugu borroka armatua agertzeko orduan. Horrela, IRAREN jardun armatu modernoak modu trinkoan mobilizazio zikloaren ondoren agertzen zaigun arren, ezin diogu masa esperientzia horri atxiki motibazio guztiak geroago ikusiko dugun bezala. Euskal Herriaren kasuan, nahiz eta mobilizazio zikloa ez den hertsiki gertatzen (besteak beste diktadura militar batean kokatzen zelako urte haietako testuingurua eta ez estatu liberal baten aurrean), egia da gizartearen artikulazio nabarmen bat ematen dela 60. hamarkadan zehar. Gainera, frankismoa bere indarra galtzen joango da denbora pasa ahala eta ekintza kolektibo politikoko esperientzia ezberdinak bultzatuko ditu.

Laburbilduz, esan dezakegu mobilizazio zikloak faktore erabakigarriak direla esperientzia bortitzak eta bereziki, borroka armatua agertzeko unean. Beraz, mobilizazio zikloak eta

⁴⁰ Borroka armatuaren adierazpen modernoaz hitz egitean, 60. hamarkadaren bukaeran sorturiko esperientziez ari gara.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

borroka armatuaren adierazpen modernoak loturik daude. Hala ere, ikusi dugun bezala, kasu bakoitzean garrantzi ezberdina hartzen du eta elementu ezberdinak biltzen ditu:

Ikasle mugimendua - Langile mugimendua	 Masa mobilizazioak eta gizartearen artikulazioa (1967-68-69-70)	BRIGADA GORRIAK
Ikasle mugimendua - Beste borroka batzuk		RAF
IRA historikoa - Eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarria		IRA (bertsio modernoa)
Langile, kultur mugimendua - Berpizkunde politikoa		ETA (talde armatu gisa)

41

Mobilizazio zikloen intentsitatea hartu dugu elementu zentral bezala borroka armatuaren agerpena azaltzeko. Horrela, hipotesiaren arabera, mobilizazio zikloa geroz eta indartsuagoa izan, orduan probabilitate gehiago daude borroka armatua azaltzeko. Baieztapen hori, betiere aztertu ditugun kasuak aintzat hartuz, atzera botako genuke. Irlandan emandako masa mobilizazioak indartsuak izan arren, ezin dezakegu esan Alemania eta Italiako mobilizazio zikloak baino indartsuagoak izan zirenik. Gainera, Euskal Herrian ez ziren beste herrialdeetan bezalako mobilizazio zikloak garatu (nahiz eta gizartearen artikulazioa existitu) eta bertako borroka armatuak Italia eta Alemanian baina logika indartsuagoa eta luzeagoak garatu ditu. Gainera, Europa mailan beste kasu batzuk hartzen baditugu, Frantziakoa esaterako, non mobilizazio zikloa oso indartsua izan zen baina borroka armatuak ez zuen ia presentziarik eduki, teoria hau guztiz atzera bota dezakegu

Ondorioz, ebidentzia hauen aurrean, beste faktore azaltzaile batzuetara jo behar dugu. Mobilizazio zikloaren garrantzia bere orokortasunean aztertu beharrez, faktore espezifikoagoetan zentratu behar gara. Masa mobilizazioen ondoren, praktika eta saretze politikoa errotzeko orduan operatzen duten elementuak izan behar ditugu begi bistan, hor egon daitezke klabeetako asko. Horietako bat gizartearen tentsionamendua da; gure kasuetan, sozialki tentsionatu eta polarizatuta dauden gizarteetan eman dira borroka armatuaren agerpenik bortitzenak. Gainera, maila txikiago eta zehatzago batera jotzen badugu, bitzta politikoan operatzen duten aktore ezberdinen artean dauden elkarrekintza dinamikak ere oso garrantzitsutzat jo ditzakegu. Horien ondorioz ematen diren indarkeriazko espiralak klabeak dira ere borroka armatuaren fenomenoak ulertzeko; hori, azken finean, gizartearen tentsionamenduaren adierazpenak dira, forma ezberdinetan ematen direnak. Tentsionamendu eta gizartearen erradikalizatzeko politiko horretan, ikusiko dugun bezala, identitateak eta subjektuen irudikatze diskurtsibo eta praktikoen paper zentrala dute.

Subjektu eta identitateak. Borroka sozial eta nazionalak.

Azkeneko ideia berreskuratuz, hau da, identitate eta subjektuen afera berriro ere hartuz, hasieran planteatu ditugun bigarren mailako hipotesiak ditugu hizpide. Horrela, izaera soilik soziala eta nazionala zuten ereduak bereizten genituen; banaketa horretatik abiatuz, bortizkeria azaltzeko mobilizazio zikloen ezaugarritzea ezberdina zela aipatzen zen. Beraz, izaera soziala zuten kasuak (Alemania eta Italia), mobilizazio zikloa beharrezkoa zuten

⁴¹ 11. taula. Iturria: lanketa propioak da.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

konfrontazio armatua jazotzeko, baina izaera nagusiki nazionala zutenek (Euskal Herria eta Irlanda), mobilizazio ziklo hori elementu erraztatzaile bezala agertzen zen.

Hau guztia ulertzeko, identitatea, subjektuen definizioa (maila diskurtsiboan eta praxian) eta komunitate politikoa bezalako elementuak izan behar ditugu kontutan. Guzti hauek klabeak dira gatazka politikoa gauzatzeko orduan. Horrela bada, identitatearen kasuan, ezberdintasun nabariak daude aztertutako kasuen artean. Identitatea, gu eta besteak subjektuen artean eratzen den lerro politiko-soziala da (Calhoun, 1994). Eraikuntza sozial bat den heinean, elementu kulturalen eta gizartearen ezaugarritze ezberdinen konposizio bat da, nagusitasun berezi bat hartzen duena gizartea zeharkatzen duten beste lerroekiko; beraz, identitate hori espazio politikoaren definitzaile klabea da (Castells, 2001).

Gure 4 kasuetan identitate horren izaera ezberdina da. Irlandaren kasuan oso argi ikusten da identitate sendo baten existentzia, izan ere, komunitate politikoa oso definituta aurkitzen da. Horrela, erlijioak eta naziotasunak identitate horren elementu eraikitzaile dira, eta aldi berean, esparru politikoaren definitzaile argi. Gatazka bortitza azaltzerako orduan, ekintza armatuak gauzatzen dituen taldeak maila diskurtsibo batean oso trinko agertzen da; saretze eta antolakuntza politikoaren orduan ere nabaria da horren garrantzia, izan ere, identitate komun eta indartsu batek hori baimentzen du. Identitate hori erresistentziakoa bezala definitu daiteke⁴². Euskal Herriaren kasuan, antzeko zerbait gertatzen da. ETAren analisisian ikusi bezala, identitate nazionalak paper erabakigarria betetzen du ekintza politikoa. Horrela, antolakuntzaren logiketan komunitate politikoa sendo bat agertzen da eta horren bitartez, talde armatuarekin batera, erakunde eta sare politiko eta sozial ugari garatzen dira. Horren adibide garbia dira alderdi politikoak (HASI, LAIA...), eragile sozialak (ASK, Jarrai, Egizan...) edota sindikatuak (LAB). Maila diskurtso batean ere hau presente dago, izan ere, euskal nazioaren elementuak oso modu nabarian agertzen dira, identitate politiko trinkoa sortuz eta ekintza kolektibo bortitza erraztuz. Hala ere, Irlandaren kasuan ez bezala, identitate berri bat sortzen saiatzen da ETA bere inguruan dagoen mugimendu politikoa: Euskal Herri Langilearena hain zuzen ere. Beraz, identitate nazional trinkoa aprobeztatuz eta ezaugarritze soziala gehituz, subjektu berri baten eraketa garatzen da. Identitate berri hau, proiektu identitatearen⁴³ eta erresistentziakoaren artean kokatuko genuke, tentsio horretan hain zuzen ere. Italiaren kasuan, ezaugarritze soziala duen identitate bat proiektatzen da ekintza kolektibo bortitza gauzatzeko orduan. Horrela bada, identitate nazionala baino ahulagoa den identitate soziala hori erabiltzen denez, komunitate politikoak ez du behar besteko saretzea erakusten. Irlanda eta Euskal Herriaren kasuarekin alderaturik, erakunde armatuak gauzatzen duen saretze politikoa (alderdiak, sindikatuak, herri mugimenduak) nahiko mugatua da. Gainera, diskurtsiboki ere identitate soziala garatzen da, langileak eta bestelako talde sozial subalternoak subjektu bezala definitzearen ondorioz. Proiektu identitatearen garapen argi bat daukagu hemen, klasikoki eman dena (langileei interpelazioa). Azkenik, Alemaniaren kasuan,

⁴² Erresistentziako identitatea, dominazio egoeran aurkitzen den aktore edo talde sozio-politiko batek eratzen duen kategoria bat da. Honen bitartez, komunitateak sortzen dira, ekintza politikoa zeharkatzen dutenak (Castells, 2001).

⁴³ Proiektu identitatea, aktore edo talde sozio-politikoek, eskura dituzten termino eta elementu politiko-kulturalak aprobeztatuz, eratzen duten kategoria berri bat da. Beraz, eraikuntza sozial berriztatzaile bat izango litzateke, esparru politikoa birdefinitzeko asmoz egindakoa. Honen bitartez, subjektuak sortzen dira (Castells, 2001).

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak European 1960-70 hamarkadetan

identitate politiko definitu eta trinkotu baten falta aurkitu dezakegu. Nahiz eta ezaugarritzen soziala duen kasu bat izan, ez da Italian bezalako identitatea garatzen; hori batez ere, langile klasearekiko harremanean ikusten da (Alemanian oso eskasa da langileekin dagoen saretzea eta Italian, berriz, handiagoa). Horrela, saretze politiko-sozialik ez da apenas ematen eta maila diskurtsiboan, subjektu trinko baten falta nabaritzen da, izan ere, ez dira langileak subjektu argi bezala hartzen; leku hori talde sozial marjinal eta ikasleek bezalako subjektu lausoek okupatuko dute. Horrela, proiektu identitatea garatuko da Alemanian, trinkotasun eta ezaugarritze urria izango duena.

Trinkotasun, identitate indartsu eta komunitate sendoek borroka bortitzaren indarra, iraupena eta intentsitatea ahalbidetzen dutela ikusi dugu. Hala ere, beste ondorio batzuk ere badituzte ezaugarri horiek; identitate nazionalen kasuan, gizartean ematen den aldakortasuna oso urria da, hau da, bere komunitatea zabaltzea zaila da. Ezaugarritze sozialetan eta elementu oraindik eta subjektiboak ezartzen diren komunitateetan, nahiz eta trinkotasuna oso lausoa izan, aldakortasuna handiagoa da eta beraz, komunitatea zabaltzeko aukera ere (Allardt, 1979). Beraz, horrek guztiak konfrontazio bortitzetan ere bere erreflexua du. Horren adibide garbia da mobilizazio zikloen gorabeherak zein kasutan duten indar gehiago (RAF eta Brigada Gorrien kasuetan hain zuzen ere).

Ondorioz, ikusi bezala, ezaugarritze nazionala eta soziala duten gatazka politikoen artean ezberdintasun nabaria aurkitu dezakegu⁴⁴. Hori beste elementu batean agertzen zaigu: kasu hertsiki nazionaletan borroka armatuak garatzen dituen logika luzeagotan. ETA eta IRAREN kasuetan, talde armatua eta proiektu politikoa mobilizazio zikloa jazo baino lehenago existitzen da; Brigada Gorrien eta RAFen kasuetan, ordea, talde armatua eta mobilizazio zikloa guztiz loturik daude, hau da, ezingo litzateke lehenengoa bigarrena gabe azaldu. Aldagai aurrekari baten existentzia dago, beraz. Logika horiek konfrontazio bortitzaren garapenean ere ikusi daitezke, izan ere, kasu nazionaletan aurretik sortzeaz gain, beranduago bukatzen dira esperientzia horiek. Borroka soilik sozialetan, ordea, mobilizazio zikloa bukatu ahala, konfrontazio bortitza fase dekadente batean sartzen da. Beraz, garatu ditugun bi azpi-hipotesiak lerro eta zentzu zuzenean kokatu ahal ditugu. Aipaturiko aldagai aurrekaria da eratu dugun tipologia azaltzeko elementu klabea eta hainbat esparrutan agertzen zaigu bere presentzia: identitateen kudeaketan, subjektuen eraketan edota konfrontazio bortitzak garatzen dituen denbora logiketan.

	Identitatea	Subjektua	Denbora logikak	
Brigada gorriak	Proiektuzkoa (historikoa) (langileak)	Soziala (klasikoa, langile klasearekin hertsiki loturik)	Motza (mobilizazio zikloaren amaieran dekadentzia fasean sartzen da)	SOZIALA ezaugarri klasikoekin
RAF	Proiektuzkoa (berritzailea) (identitate historikoen lotura gutxi)	Soziala (berria, ezker berriarekin oso loturik dagoen eta langile klasetik zerbait urruntzen dena)	Motza (mobilizazio zikloaren amaieran dekadentzia fasean sartzen da)	SOZIALA ezaugarri berritzaileekin
IRA	Erresistentziazkoa	Nazionala	Oso luzea (XX. mende guztia)	NAZIONALA

⁴⁴ Esparru horretan gehiago sakontzeko, ikusi Adriano Pappalardok demokrazia konsoziazionalaren esparruan egindako ikerketak (Pappalardo, 1981), Erik Allardtek testuinguru industrializatuetan gatazka etnikoek duten ezaugarrien inguruan egindakoak (Allardt, 1979) eta McGarry eta O'Leary autoreek identitate nazionalen gainjartzean egindakoak (McGarry eta O'Leary, 2006).

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

ETA	Erresistentziazkoa (proiektuzkoa EHL kontzeptuarekin)	Nazionala (ezaugarri sozialekin maila diskurtsibo eta estrategikoan)	Luzea (XX. mendearen bigarren erdia)	NAZIONALA soziala
------------	---	---	---	-----------------------------

45

Beste ikerketa lerro bat, etorkizuneko ikerketaren batean planteatu daitekeena, modernizazioaren teorien afera izan daiteke. Kasu honetan, herrialde bakoitzaren garapen maila azertu beharko genuke eta horrek konfrontazio armatuetan duen eragina. Zentzu honetan bi azpi-lerro garatu ahalko genituzke: alde batetik, estatuak garatzen duen indarra konfrontazio politikoen forma determinatzeko (lanean zehar puntu hau zertxobait ukitu da estatuaren kapazitate mailaren analisiarekin) eta beste alde batetik, gizarteak duen bizi kalitatearen eta errekurtsoen maila. Betiere presente izan behar dugu fenomeno sozialek ez dutela faktore soil baten azpian operatzen, baizik eta analisi multifaktorialetatik hurbildu gaitzkeela hobeto kasuetara.

⁴⁵ 12. taula. Iturria: lanketa propiokoa da.

BIBLIOGRAFIA

- Aierbe, P. (1989): *La lucha armada en Europa*. Donostia: Gakoa liburuak.
- Allardt, E. (1979): "Implications of the ethnic revival in modern, industrialized society: A comparative study of the linguistic minorities in Western Europe" artikulua, *Commentationes scientiarum socialium* aldizkarian.
- Alonso, R. (2003): *Matar por Irlanda, el IRA y la lucha armada*. Madrid: Alianza.
- Balestrini, N.; Moroni, P. (2011). *L'orda d'oro 1968-1977. La grande ondata rivoluzionaria e creativa, politica ed esistenziale*. Feltrinelli.
- Brand, K. W. (1992). *Aspectos cíclicos de los nuevos movimientos sociales: fase crítica cultural y ciclos de movilización del nuevo radicalismo de clases medias* liburu honetan argitaratua: *Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político*.
- Bruni, L.; Giacomuzzi, G. (1988): *ETA, historia política de la lucha armada*. Tafalla: Txalaparta.
- Calhoun, C. (1994): *Social Theory and the Politics of Identity*. Oxford: Blackwell.
- Casanova, I. (2007): *ETA, 1958-2008: medio siglo de historia*. Tafalla: Txalaparta.
- Casanova, I.; Asensio, P. (1999): *Argala*. Tafalla: Txalaparta.
- Castells, M. (2001.): *La Era de la Información. Vol. II: El poder de la identidad*. México: Siglo XXI Editores.
- della Porta, D. (1995): *Social movements, political violence and the state: a comparative analysis of Italy and Germany*. New York: University of cambridge.
- della Porta, D. (1999). *Movimientos sociales y Estado. Algunas ideas en torno a la represión policial de la protesta* liburu honetan argitaratuta *Movimientos sociales: perspectivas comparadas*.
- della Porta, D.; Diani, M. (1999). *The Study of Social Movements: Collective Behaviour, rational Actions, Protests and New conflicts* liburu honetan argitaratua: *Social Movements: An Introduction*. Oxford: Blackwell.
- della Porta, D.; Rucht, D. (1995): *Left-Libertarian Movements in Context: A Comparison of Italy and West Germany, 1965-1990* liburu honetan: Klandermans, B.; Jenkins, C.: *The Politics of Social Protest: Comparative Perspectives on States and Social Movements*. Minneapolis: University of Minnesota.
- Fanon, F. (1961, 1965). *Los condenados de la tierra. Prólogo de Jean Paul Sartre*. México: FCE.
- Galtung, J. (1969-1971). *Theories of conflict. Definition, dimensions, negations, formations*. University of Oslo.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Glasl, F. (1982). *The process of conflict escalation and roles of third parties* artikulua, liburu honetan argitaratua: Bomers, G.; Peterson, R. *Conflict management and industrial relations*. The Hague: Kluwer Nijhoff.

HASI (1983): *II. Congreso, Independentzia eta sozialismoaren bidean*.

Hocker, J.; Wilmot, W. (1995). *Interpersonal conflict*. Iowa: Brown & Benchmark.

Hunt, S.; Benford, R.; Snow, D. (1994). *Marcos de acción colectiva y campos de identidad en la construcción social de los movimientos* liburu honetan argitaratua: *Los nuevos movimientos sociales. De la ideología a la identidad*. Madrid: CIS.

Ibarra, P. (1987): *La evolución estratégica de ETA: de la "guerra revolucionaria" a la negociación*. Donostia: Kriseilu.

Ibarra, P. (2005). *Manual de sociedad civil y movimientos sociales*. Síntesis

JARRAI (1986): *Manual de premilitancia*.

Letamendia, F. (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA*. Donostia: R&R.

Magri, L. (2009). *El sastre de Ulm*. El viejo topo.

McAdam, D.; Tarrow, S.; Tilly, C. (2005). *Dinámica de la contienda política*. Barcelona: Hacer.

McGarry J.; O'Leary, B. (2006): *Consociational Theory, Northern Ireland's Conflict, and its Agreement. Part 1: What Consociationalist Can Learn from Northern Ireland. Government and Opposition*.

Mitchell, C. (1981). *The structure of international conflict*. London: MacMillan.

Moretti, M. eta Rossanda, R. (2002). *Brigadas Rojas*. Akal.

Morrison, D. (1997): *El IRA y la paz en Irlanda: de los derechos civiles a la lucha armada*. Hondarribi: HIRU.

Pappalardo, A. (1981): "The Conditions for Consociational Democracy: a Logical and Empirical Critique" artikulua, *European Journal of Political Research* aldizkarian.

Rodriguez, F. (1997): *El conflicto irlandés y vasco: analisis comparativo*. Hondarribia: HIRU.

Scialoja, M. (1994). *Renato Curcio, a cara descubierta*. Tafalla: Txalaparta.

Sztompka, P (1995): *Sociología del cambio social*. Madrid: Alianza.

Tarrow, S. (1990): *El fantasma de la ópera: partidos políticos y movimientos sociales de los años 60 y 70 en Italia* liburu honetan: Dalton, R.; Kuechler, M.: *Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político*. Valencia: IVEI.

Tarrow, S. (1994). *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*. Madrid: Alianza Universidad.

Mobilizazio ziklo eta konfrontazio bortitzak Europan 1960-70 hamarkadetan

Tilly, C. (1986). *The Contentious French*. Cambridge, MA: Harvard University Press.

Tilly, C. (2007). *Violencia Colectiva*. Barcelona: Hacer.

Touraine, A. (1993): *Crítica a la modernidad*. Madrid: Temas de hoy.